

Goierriarra

320. zenbakia 2007ko maiatzak 11

lizar Zubizarreta

HAURRAK LITERATURARA HURBILTZEN



ORDIZIAKO KIROLGUNEKO
HOSTALARITZA ZERBITZU BERRIAK


MAJORI
TABERNA


ALTAMIR
JATETXEA

berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
Tel.: 943 653 307
Tel. / Fax: 943 650 520
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
Fax: 943 675 421
E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



POLIURETANOZKO LEIHOAK



**DR. JOSE
GISASOLA**

3998 Elkargokidea



OSTEOPATIAN MEDIKUA

BIZKARREKO MINAREN TRATAMENDU NATURALA **Lumbalgia, Hernia Diskala, Zefalea, Migraina, Artrosia, ATM**

Osteopatia lumbalgia, hernia diskala, bizkarreko zein buruko mina, artrosia eta antzerako ondoezak, ezur eta nerbioetan sorturikoak, sendatzen dituen medikuntzaren espezialitatea da. Gure eginkizunekin zuzenki erlazionaturik dauden eta bizi kalitatean eragin handia izan ohi duten minak gainditzeko laguntzen digu medikuntzaren alor honek.

Jose Gisasola osteopatia medikua da eta urteak daramatza tratamendu naturalez baliatuz gisa honetako gaitzekin lanean.

Aurrez hitzordua hartuta:

629 45 20 53 - jgisasola@telefonica.net

Andra mari, 13 Sol.Art. Ezk. / 20200 Beasain (Gipuzkoa)

Urbietan, 39 – 1. Ezk / 20006 Donostia (Gipuzkoa) / T 943 471 885



BERTSOTAN

Zer eskatzen diozu herriko alkate berriari?



Aitor Sarriegi

Alkategaiak hasi zaizkigu
promesa ta iragarki
guk lehengo bera espero dugu
nonbait betiko izaki.
Meeting, speech eta party
zirko handiaren zati
Kanpainan behintzat soberan dira
irribarre ta sinpati.
Lana zein duen badaki:
kudeatu, erabaki...
baina ahotsik ukatu gabe
herriaren zati bati.

Hiri txikia proiektu handi
dolore, Dollar, Dolare...
azpiegiturak falta herriak,
udala hutsaren jabe
lursail, jabetza, ondare
Marbella berrien pare
herria salgai dago aspaldi
ordaintzailearen alde
Alkate jauna, halare
eskaera bare-bare...
goberna zazu Beasain baina
Donosti izan nahi gabe.

Doinua: "Gure lurrean hedatua da"

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behe

BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetza: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga

9. Oñati)

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

**Goierritarrak ez du bere
gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.**

Goierritarra

diruz laguntzen duten
erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Iñaki Murua.

5. Ingurugiro txokoa: Zenbaiteraino
dira naturalak hondamendi
naturalak?

6. Euskara txukuntzen: Benetako
ala benetazko?.

8. Erreportajea: Itziar Zubizarreta
ipuin kontalaria.

12. Goierritarrak munduan: Iker
Azurmendi beasaindarra Txinan.

14. Hauteskundeak: Udal
hauteskundeetako zerrendak.

20. Elkarrizketa: Saioa Garin
legorretar abeslaria.

24. Elkarrizketa: Odei Lopez pisu
jaurtitzailea.

28. Iragarki laburrak.

30. Argazki zaharra.

8



20



24



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Iñaki Murua

Zalantza metodikoa

Deskartesek zionez, eta esperientziak hala erakutsi ziolako zion, ezer ezin da ontzat eman aurrez hala dela frogatu gabe; ez gaian jakitun batek esan duelako eta ezta urteen poderioz hala izan omen delako eta hala ik(u / a)si dugulako ere.

25 urte bete ditu Goierriko Bertso Eskolak. Dena sakon, zorrotz eta zehatz aztertzeke garaia ere bada, zoriontzekoaz gain. Dena zalantzan jartzekoa?

Izena: Bertso eskola baten izena eskola hitzez amaitzea egokia al da? Badakit izen hau daramatela guztiek. Beno, guzti guztiek ez, batzuek izen propio bat dute eta kitto. Baina, eskolaz ez al daude gazte ia denak kokoteraino gero beren ordu libreetan berriro ere eskolara joaten has-teko? Eta ez al dute gero eta gazteagoek erabakitzen beren ordu libreak nola eta zerekin bete? Eskolako jardunaren kopia al da edo izan behar al du bertso eskolak? Kantuan aritzea, pasadizoak kontatzen entrenatzea, hiztegia / errimategia lantzea, bertsoak KDan edo bideoetan ikusi / entzutea, adierazpen gaitasunak edo antzertzekeak garatzen saiatzea... eskola kontuak al dira?

Hala izan edo ez, izenak markatzen du askorentzat jarduna eta bi aukera kontuan izan behar genituzke: edo zehaztasunez jakinarazten diegu guraso, gazte eta gaztetxoei zertan dihardugun edo izenarekin batera izana ere erakustaldi bidez begi-belarrietarazten diegu. Gainera, bertso eskolarako bidea ez al dugu eskoletan eta bertako irakasleen bidez iragartzen?

Irismena: diptiko, triptiko eta antzekoen bidez ere ahalegintzen gara guraso eta eskola umeengana heltzen. Eskuz esku banatzen ditugu, nagusiki, irakasleengandik jasotzen dituztelarik: etxera eramaten badut joateko igual esango didate eta hegazkin bihurtzea hobe!, ikasle batek baino gehiagok egin dezakeen susmoa kontuan hartu behar al dugu? Ez ote genuke KD bat argitaratu beharko egiten diren arike-

ta gustagarri, bitxi, mahai inguruko jardun e.a. jasoz? Goierri telebista leiho interesgarria ez ote, egiten denaren irudi erreala plazaratzeko eta erreferentzia egokia har dezan jendeak? Goierri bailarako eskolentzako espresuki prestatutako bertso saio bat egitea eta finantzatzea, motibazio iturri gisara, gehiegi ote?

Izana: zertarako balio duen bertsoak eta zergatik aholkatzen dugun bertsolari-ko ariketak egitea, gazte / nerabeen artean, ondo arrazoitu beharko genuke. Komunikazio gaitasuna sendotzea, memoria-ren lanketa, hiztegia aberastea, gorputz adierazpena, musika, besteari entzutea, errespetuz erantzutea, bestearen argudioak baliatzea... zertarako behar dira? Guk uste dugu oso balore interesgarriak direla edonorentzat, baina ez ote dira jende askorentzat betiko sermoia, bere produktua saldu nahian ari denaren zelofana? Ba al dago esaten ari garenaren frogarik? Zeintzuk dira bizitzan arrakasta izateko pertsonari ongi datozkion bitartekoak? Dirua irabazteko balio al dute guk aipatu ditugun horiek? Ez al da praktikoagoa futbole-lean edo txirrindularitzan inbertitzea? Kantuan eta txorakerian denbora alferrik galtzea baino aurreragoko lanik ez al dute gaurko gazteek, adibidez, ingelesa ikasi edo marrazketa edo ...? Zein da kompetentzia eta zer egiten du?

Jarraipena: ikastetxeetan bertsoa lantzen aritzen da bertsolari bat asteen edo hamabostean hainbat orduz. Ba al dugu, Bertso Eskolan, hark egiten duen lanaren berririk? Zein metodo darabilen? Koordinatuta al gaude berarekin antolaketaz, materialaz, oztopoez, arlo positiboez? Bertso Eskola iragartzen dugunean lotzen al dugu bere jardunarekin? Bertsolariak eskoletara gaia lantzerako hasi aurretik eta ondoren Bertso Eskolara datorren ikasle kopuruak izan al du aldaketarik? Batak lehen egiten zuen jarduna ordezkatu al du hezkuntzan egiten denak? Elkarren jarraipena izan behar al dute derrigorrean Hezkuntzako jarduna eta Bertso Eskolako? Irakasle berak balio al du bietarako? Edo-zein adinetako irakasleak berdin balio al du? Zein formazio behar dute irakasleok?

Bitartekoak. Formazioa / Motibazioa. Helduen Bertso Eskolak. Goierriko (Ordizi, Ataun, Beasain...) Bertso Eskola. Bertso Eskola baten antolaketa...

Luzeegia da zerrenda gai guztiak jorratzeko baina helduko diogu mahai baten inguruan, astiro eta eraikitzeke intenzioz. Ordura arte.

25 urte bete ditu Goierriko Bertso Eskolak.

Dena sakon, zorrotz eta zehatz aztertzeke garaia ere bada, zoriontzekoaz gain.

Dena zalantzan jartzekoa?

Zenbateraino dira naturalak hondamendi naturalak?

Definizioz hondamendi natural bat fenomeno geodinamikoen ondorioa da (lurrikarak, laba isurketak, itsasikarak, tsunamiak, hurakanak,...). Gertakizun hauek lurrazala egonkortzeko energia askatzean ematen dira. Hala ere beste hondamendi batzuk ere gertatzen dira, lehorteak edo euriteak besteak beste, El Niño edo klima aldaketaren ondorioa izan daitezkeelarik. Fenomeno natural hauek luraren historian duela milioika urtetik hona ezagutzen dira.

Hala ere, Juan Eduardo Gil Mora ingurugiro zientzia eta teknologian adituaren arabera lehenik aipaturiko fenomeno naturalen erregistro estatistikoa ez da aldatu azken 50 urteetan, baina bai luizi, harri erorketa edo uholdeen maiztasuna, hauek 10 aldiz ugaltu direlarik. Gertaera hauek oso kaltegarriak izan ohi dira pairatzen duten biztanleria-erentzat. Askok gertakari hauei "hondamendi natural" deitzen die, baina Gil Morak dudatan jartzen du hauen "naturaltasuna". Ar-

dura norena den galdetzeaz gain denok horrelako gertaerak ekiditeko egin genitzakeen ekintzak zerrendatzen ditu ondorengo puntuetan.

1. Ez da luraren egitura edota kliman aldaketa nabarmenik eman hondamendi mota hauek areagotzeko. Aldiz, aurreikuspen zehatzik gabeko ekintza ekonomikoen kontzentrazioak eragiten ditu. Adibidez jartzen ditu errepideen eraikuntzak (ez dira beti malda eta ezponda egokiak errespetatzen). Errepide baten eraikuntzak potentzialki lubizak eta harri erorketak areagotzen ditu. Zubiak ere uholdeen eragileak izan daitezke. Askotan ez dira kontutan hartzen uholdeen informazio historikoa, plumbiometria ibaiaren arro guztian ezta honen hidrogeologia ere. Ibaien uholde lautodetan edota labaintzeko arriskua duten ezpondetan egindako eraikinak ere aipatzen ditu autoreak.

2. Deforestazioa, suteak eta nekazar aktibitate desegokiak besteak beste estaldura

begetalaren murriztea eta ondorioz lurzoruen soilteza eragin dute. Lurzuak babesik ez izatean higitu egiten dira, edota alderdi bultzatuenetan ura metatu guztiz saturatu arte, labainketa eta luiziak sortuz.

3. Hondamendi hauek etxebizitza eta eraikuntzen suntsitzea, uzten galera eta giza galerak sortzen dituzte. Autoreak hondamendi hauek konpontzeko gastatzen den diru kopuru handi hauek ekiditen erabili beharko litzatekeela aldarrikatzen du. Gainera, txiroenak jasaten dituzte normalean hondamendien ondorio latzenak.

4. Hondamendi hauek maila batean aurreikus daitezke gaur egun dagoen teknologiarekin. Legeak honelako hondamendiak gertatzen direnako batzordeak eratzen ditu, baina Gil Moraren hitzetan hauek hondamendiak aurreikusteko osatu beharko lirateke, eta ez gertatzen direnean kalteei aurre egiteko.

5. Ingurugiroa gizakiari, gizaritari eta erakundeei atxikia dago; garapena bideratzeko erabiltzen diren tresna eta teknologia guztiak inguruarekin bat egin beharko lukete. Egiten diren ekintza guztiak aurrera eramatean, naturak hauen efektuei erantzuteko ahalmena duen ala ez kontutan hartu beharko litzateke.

Informazio gehiago www.portaldelmedioambiente.com web orrian.

JAKIN BEHARREKOAK

MON 863 arto transgenikoak toxikotasun adierazgarria du. Caengo (Frantzia) Unibertsitateko injeneritza genetikoko aditu taldeak eginiko ikerlanak baieztatu duenez, arto transgenikoarekin elikatutako laborategiko arratoiak toxikotasun adierazgarria agertu dute gibelan eta giltzurrunean. Arto hau Monsanto enpresa bioteknologikoak garatu du.

"Archives of Environmental Contamination and Toxicology" zientzia aldi-karian argitaratutako ikerketak, Monsanto Europar Batzordeari aurkeztutako segurtasun probak aztertutako datuek arto genetikoki eraldatuak osasunerako arrisku esanguratsua duela baieztatzen du. Hala ere, Europar Batzordeak salmentarako baimendu zuen, bai animalientzat, baita gizakientzat ere. Kasu judizial baten ondoren lortu zituen Grenepeacek datuak eta Gilles Eric Seralinik eta bere taldeak Caengo Unibertsitatean ebaluatu zituen. Seralinaren hitzetan "Monsantoren analisisak ez luke azterketa zorrotzik gaitutako", estatistika protokoloak oso eztabaidagarriak dira eta datuak isilean gorde dira. MON 863 artoak intsektizida berri bat ekoizten du (Cry3Bb1 eraldatua) lurreko intsektua, Diobrotica virgifera, hiltzeko gai dena. Honez gain, artoak duen gen batek antibiotikoei aurre egiteko erresistentzia kodetu dezake.

Egiten diren ekintza guztiak aurrera eramatean, naturak hauen efektuei erantzuteko ahalmena duen ala ez kontutan hartu beharko litzateke.

Benetako ala benetazko?

Maizpide
euskaltegia

Azkenaldi honetan bigarren forma hori sarritan entzuten dugun arren, **lehena da zuzena**.

Badirudi **egiazko** forman (Matalas abesti herrikoiko "egiazko xiberutarrak" gogoratu besterik ez dugu) oinarritu izanak eragin duela akats hau. Honen azpian **egiaz** dugu, bai, baina ez ***benetaz** bestearenean!

Halere, puntu honi dagokionez gauzak garbi gera daitezzen, euskaraz **-ko** horren parean **-zko** ere badugula esan behar dugu:

**Benetako
dinosaurioa naunk,
hi!**



1. Maiz izenondoei eransten zaie:

*Arazo izugarria izan dugu lantegian > **Izugarrizko** arazo izan dugu lantegian.*

2. Beste batzuetan zerezko galdetzaileari erantzuten dio:

*Erantzuna zilarrez egina bada, **zilarrezkoa** izango da.*

Honi lotuta, ordea, errepara diezaigun bezeroaren eta tabernariaren arteko elkarrizketa honi:

- *Hi, aizak, atera iezadak patata-tortilla ogitartekoa!*
- *Tortilla... zerezkoa esan didan?*

Zuzena ote da galdera hori? Bada, ez! Horrela behar du:

- *Zerena esan didan?*

Eta erantzuna, beraz:

- *Patatarena (eta ez "patatazkoa").*

Zuzendu, behar izanez gero...

1. Bolizkoa edo urrezkoa, kontua da bitxi hori benetako dela!
2. Tortilla urdaiazpikozkoa nahi dute neska-mutiko horiek.
3. Ikaragarritzko euriteak izan omen dituzte Pirinioetan.
4. Alderdi politiko horretan benetazko arazoak izan dituzte hauteskundeetarako zerrendak osatzeko.

OHARRA: bigarrena eta azkena ez dira zuzenak.

IÑAKI ARIN
Aseguruak



☎ 943 888 702

Oriako Pasealekua, 20

B E A S A I N



Logela, egongela
eta sukaldeko
altzari nahiz
osagarrietan
aukera paregabea

Altzariak neurrira

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47
Antzizar-Katea, 5 **BEASAIN**

ZAHARRA • BERRI

IGELTSERITZA ETA ERAIKUNTZA



Eraikuntzak

Gremioen koordinaketa

Erreforma orokorrak

Teilatuak

A. Almeida
943 180 372
651 700 435
aiakoerrota@terra.es
ATAUN

BARANDIARAN
zeramikak

ERREFORMAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJAK

SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com





Itziar Zubizarreta

“Haur literatura sustatzeko ondo osatutako kanpaina falta da”

Haur literaturaren mundu liluragarrian erabat murgildurik bizi da Itziar Zubizarreta ordiziar-donostiarra. Galtzagorri Euskal Haur eta Gazte Literatura Elkarteko eta Oepli-ko kidea da.

Haurrentzat formatu ezberdineko materiala ere sortzen du. Ipuin-kontalaria ere bada. Haurren artean irakurzaletasuna bultzatzeko kanpaina egokiak sustatzearen beharra ikusten du Zubizarretak.

garenakX2
lortu ezazu **hitza**ren
harpidedun berri bat
izateko

eta **opari bana** jasoko duzue

aukeratu gustuko
duzun oparia*



*harpidedun berria maiatzaren 30a baino lehen ekartzen dutenentzat.

hitza

Goierritarra

BEZERO ARRETA ZENBAKIA:

902 820 201

astegunetan: 08:30 - 20:30
larunbatetan: 09:00 - 13:00

Haurren eta literaturaren munduan urte asko daramatza lanean Itziar Zubizarretak, “batez ere eskoletako materiala egin dut, kurrikuluma berritu, berrikusi, hizkuntzaren trataera birplan-teatu eskoletan, bai ahozko-tasuna, bai idazmena... hor lan asko egin dut”, adierazi digu ordiziarrek. Literaturan ere esparru ugari lan egin du. “Adibidez, Galtzagorriren aretoak muntatu ditut, antzerki obra pare bat idatzi eta egokitu ditut... Argitaratu, gehienbat, eskolako materiala argitaratu dut. Orain segurasko, gauza berri bat argitaratuko dut, aurten agian, prestatzen ari naiz”. Mingainari tira egiten saiatu gara, baina ez digu ezer aurreratu nahi izan.

Azkenaldian, Oepli (Haur eta Gaztetxo literaturaren Espainiako Erakundea) Elkarteko lehendakari denetik, asko bidaiatu behar izaten du. Ahal dela, autobusean edo trenean ibiltzen da. Liburua, bidai lagun ona izaten du eta lane-rako aprobetxatzen ditu ahal dituen tarte guztiak, “asko irakurri behar izaten dut-eta”.

Euskarazko haur eta gazte literatura sustatu eta ezagutaraztea helburu duen Galtzagorri Elkarteko kidea da. “Galtzagorri Espainiako beste hizkuntzetan dauden beste literatura elkarteekin federatuta dago, beste erakunde internazional baten Espainiako sekzioa da. Gaur egun lehendakaria izatea tokatu zait. Andersen sarian parte hartzea tokatu zait, orain adibidez, maiztean, Leonen egingo den haur eta gazte literatura azokaren zati handi bat ari



Oepli-ko lehendakaria da Itziar Zubizarreta, Galtzagorri elkartearen izenean. Oeplik, Estatuan lau atal ditu federatuta eta borietariko bat, Galtzagorri Euskal Haur eta Gazte Elkartea da.

gara moldatzen, beste jardunaldi iberoamerikar bat ere ari gara antolatzen”, zehaztu du.

Langintza ugari ditu Itziar Zubizarretak eta bere lanari esker, nazioarte mailako literatura ezagutzeko aukera izan du.

Zer moduzko maila dago euskarazko haur literaturan?

Nik uste dut badaudela ilustratzaile onak eta baita idazle onak ere. Ezin dut aipatu inor. Adibidez, Andersen sariak bezala, mundu osoan, ateratzen da, Ibbyren ohorezko zerrenda bat

eta iaz bi liburu eduki genituen zerrenda horretan, eta hori mundu osora zabaltzen den zerrenda bat da. Patxi Zubizarreta eta Elena Odriozolaren ‘Atxiki sekretua’ zerrenda horretan dago, Elenaren marrazkiengatik. Eta beste aldetik, Mariasun Landaren ‘Kokodriloren ohe azpian’-gatik. Galtzagorrik badu status potente bat maila horretan.

Haur literaturan, istorioa bezain garrantzitsua ilustrazioak izaten dira, ezta?

Bai. Ilustratzaileen lana, estilo bateko liburuentzat gidoia bezain inportanteak.

Album ilustratuak adibidez, adin guztietarako dira, ez dira ume txikientzako bakarrik. Letra gutxi duelako ez du esan nahi ume txiki batek ulertu behar duenik. Album ilustratu horietan, gidoi on bat eta ilustrazio garapen on bat behar dira, historia ondo ulertzeko, bisualki ulertzeko. Horietako askotan, hitzek apenas dute garrantzirik. Baina horren atzean dagoen historiak, idazleak egiten ditu, eta gidoia idazleak egiten du, marrazkilariarekin batera. Garrantzitsua da bien arteko harreman estua. Beste zenbaitetan, marrazkilari batek liburua ilustratu egingo du. Erakargarriago bihurtuko du, edo agian esplikatu egingo ditu liburuak dituen pasarte batzuk. Guretzat ilustratzaileek idazleek adina garrantzia dute.

Ilustratzaileen lana, estilo bateko liburuentzat gidoia bezain garrantzitsua da.

Arkupe

ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAIK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA



**RENAULT
LAZKAO GARAJEA**

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxa: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO

Gaur egungo umeen liburuak oso erakargarriak dira... Lortzen al da irakurtzeko zaletasuna?

Nik uste dut literatura beti izan dela minoritarioa, eta orain ere hala da. Gero nik uste dut baita ere falta dela, haur literatura sustatzeko ondo osatutako kanpaina. Alde batetik, irakurzaletasuna gako artean jarri behar da, liburuak erakargarri bihurtzeko metodologiak eta sistematizatu egin behar dira, eta ondo sistematizatu. Zenbaitetan, eskolako lan bat da irakurtzea. Zazpi urterekin, umeak badoaz beraien liburuekin, eta irakurri egin behar dute. Ez dakite irakurtzen eta nola gustatuko zaie bada irakurtzea, ez badute ulertzen zer ari diren irakurtzen? Silabaz silaba... horrek ez du inongo plazerrik ematen. Eta hori bezala aipatuko nizuke zerrenda luze bat, ez dutela ipuina edo liburuak erakargarri bilakatzen haurrentzat. Hor hutsune izugarri handia dago. Eta alde batetik, erakundeek bultzatu egin behar dute. Baina behingoz, ondo aztertutako kanpainak behar dira. Eta beste alde batetik, diru inbertsio handia egin beharko lukete, Europako beste herrialde batzuetan egiten duten bezalaxe. Batetik, gurasoek ez dute irakurtzen eta bestetik, medioek zer bultzatzen dute? Irakurzaletasuna ala garrai artean egiten diren ekintzak? Irakurtzea, ixilik egotea, lasai egotea, geldirik egotea... da.

Liburuetara gerturatzeko zein da gakoa? Ipuin egoikiak adin egokirako aukeratu...

Eta nola inguratu, nola sartu... Eta zenbaitetan, haurrek, irakurri baino, entzun egin behar dute nola irakurtzen duten nagusiek. Eta zenbaitetan esaten dugu haurrak irakurri behar duela baina irakurtzea oso ume gutxiarentzat da erakargarria. Ixilik egon behar dute, gel-



Ohe ondoko mahaitxoan liburu asko edukitzen al dituzu?

Banaka irakurtzen dut. Lanerako ez, lanerako liburu asko erabili behar izaten ditut eta horiek hasi eta bukatu egiten ditut. Galtzagorri Mintegi bat daukagu, eta Mintegi horretan, euskaraz argitaratzen den guztia irakurtzen dugu. Hor azkar irakurri behar izaten dut. Hilean behin elkartu eta liburuak komentatu egiten ditugu. Hori irakurketa azkarra da. Plazarrez irakurtzen ditudan liburuak beste era batera irakurtzen ditut.

di egon behar dute... Askoz ere hobea da gurasoek euren kontatzea eta ikustea liburuetan dagoena erakargarria dela. Eta gero haurra joango da bere kisa zerbaiten bila.

Gero beste gauza bat ere badago: lehenetsia testuari ematen zaio, eta sartu zaigu irakurketa oso beharrezkoa dela eskolan gai guztiak gainditzeko, eta orduan zertan ari gara? Irakurri eta irakurri esaten. Agian erakurri egin behar dugu horretara. Eta horretarako egin behar dugu, irakaslea formatu, bibliotekarioa formatu, plan egoki batzuk eraiki eta liburuak jarri. Frantziar, Alemaniar, Italiar... irakurle gehiago dau-

de hemen baino. Espainiako beste komunitate batzuetan, oso plan onak daukete irakurzaletasuna bultzatzeko.

Eta hemen ba al dago plangintzarik?

Orain hasi da plan bat martxan jartzen. Oraindik ez da garatu eta ikusiko dugu. Nik berriz ere diot: hori egin egin behar dela, ondo eraiki behar dela, profesionalen bidez eta profesionalak formatu egin behar dira horretarako. Horrek esan nahi du diru inbertsio handi bat. Galtzagorri bi urtera biltzar bat egingo dugu eta irakurketa suspertzeko hainbat plangintza aurkeztuko ditugu. Esperientzia ezberdinak. Orain Leonen

Askotan hobea da gurasoek euren irakurtzea eta ikustea liburuetan dagoena erakargarria dela.

ere, lau esperientzia azalduko ditugu: Kolonbiakoa, Venezuelakoa, Extremadurakoa eta Kataluniakoa. Ikusi egin behar da zein plan dabil-tzan munduan eta batez ere plan horiek gero nola he- le- razten zaizkien biblioteka- rie- i, irakasleei eta azkenean haurrei.

Eta gurasoei?

Bai, bai, jakina. Etxean zer egin, nola jokatu... Guk da- torren urterako, haur txiki- txiki- en hezkuntzaren ingur- ruan aritzea, guraso eta haur eskolatan, plan txiki bat martxan jartzen hastea nahi genuke Galtzagorritik. Ikusiko dugu zein aukera daukagun eta asmatzen du- gun.

Umeei ipuina irakurri eta gustura egoten dira.

Izugarri gustatzen zaie. Bai- na gurasoek ez dute ohitu- rari- k hartzen, hau da, gura- soek denbora hartzen dute telebista piztuta eduki eta bitartean etxeko lanak egi- teko. Haurrak telebistari be- gira, eta beti ez gainera gauza egokiei begira. Begi- ra, izugarria da, telebistak eta marrazki bizidunek du- ten erritmoaren eta umea- ren barruko erritmoaren ar- teko desoreka. Hori izuga- rria da. Uste dut, minutuko 20 sekuentzia planteatzen dituztela marrazki bizidu- nek. Umeek hori ikusi egi- ten dute, baina hori ezin dute prozesatu, ezin dute ulertu zer gertatzen den. Eta ohitu egiten dira, ulertu ga- be funtzionatzen.

“Ipuin-kontaketak oso baliagarriak dira haurren emozioak mugiarazteko”

Haurrekin zuzeneko harremana ere izaten du Itziar Zubizarretak, ipuin-kontaketen bidez. Duela 15 bat urte hasi zen lan horretan, nahiz eta azkeneko lau urteetan ixilik egon den. Orain, banaka batzuk egiten hasi da berriro, “oso politak izaten dira. Umeak egoten dira oso gustura”, adierazi du.

Ipuin-kontalariaren lana berezia izango da: haurren sentipenak zuzenean jasoko dituzu...

Ipuin-kontaketak oso baliagarriak dira haurren emozioak mugiarazteko. Nik uste dut ipuin-kontaketa saioak batez ere horretarako direla. Dibertitzeko bai, baina bakea eman-go dion sententzia ematea ere bai. Nik egiten ditudan ipuin-kontaketa soil horiek, ipuin barregarriak dira, baina beti horrelako balore baten inguruan, beti alaitasuna eta emozioak landuz. Eta nik uste dut ipuin-kontaketa saioak horretarako oso onak direla: barneko bake hori goxatzeko. Alde horretatik oso politak dira.

Ipuinak kontatzerakoan idatzi, inprobisatu... zer egiten duzue?

Nik uste dut azkenean beti ipuin berdina kontatzen dudala. Nik uste dut, proba egitea dela. Orain adibidez, sei-zazpi ipuinekin funtzionatzen dut. Azkenean, hizkuntzaren proba bat da, argumentu baten proba bat, gero nola kontatu, pixkanaka-pixkanaka. Ipuin bakoitza konposizio txiki bat da eta konposizio hori beti irekia dago. Orduan, erantsi egiten dizkiozu elementu berriak, probatu egiten duzu... Gauza ez da zenbat



Itziar Zubizarreta:

“Ipuin bakoitza konposizio txiki bat da eta konposizio hori beti irekia dago.”

ipuin kontatzen dituzun. Hiru urtez behin, leku berdinean ipuin berdina kontatzen dezakezu. Azken batean, ipuin bakoitza, emozio klase bat mugitzeko instrumentu bat da. Azkenean badakizu, ipuin hori kontatuz, modu horretan kontatuz eta hitz horiekin kontatuz, ailegatu egiten zarela haurren erregistro jakin batera.

Ipuin bakoitzak badu bere bizitza propio bat, eta bizitza propio hori nik ematen diot, baina ni ez naiz konsziente horretaz. Hainbat ipuin pixkanaka-pixkanaka sortu egin ditut. Horietan, ipuin horietako asko, tradizioetik heldutako elementuak dira, gero nik konbinatzen ditut eta nik bilakatu ditut ez dakit nola. Idatzi ez dut sekula egiten.

Egoeraren arabera, aldatu, moztu, luzatuko duzu ipuina. Keinuak ere garrrantzitsuak dira. Akto-reak izango zarete askotan.

Ez. Keinuak nireak dira, ni ez naiz geldirik egoten. Aktoreek adibidez, gauza bat buruz ikasi eta hori kontatzen dute, eta gainera entsaiaitu egiten dute zein aurpegi jarri behar duten, nola... Eta nik ez. Nik, barrundik atera bezala kontatzen dut. Eta hori bakarrik kontatzen dut. Esango baze-nit, ipuin hori kontatzeko, agian ez dakit kontatzen. Nik nire ipuinak dakizkit kontatzen. Ezberdina da. Aktoreek ikasi egiten dute eta hori kontatzen dute eta ondo. Baina nik ez dut hori egiten. Nik sortu egiten dut, hitzez hitz, eta zenbaitetan, horietako ba-

tzuk, garatu egiten ditut eta beste batzuk bertan behera uzten ditut. Eskema bat da, eta askotan eta askotan kontatu ahala, ipuin horrek gorputz bat hartzen du. Nik kontatu izan dut adibidez, autore baten ipuin bat, Oscar Wilderen Gazteluarena eta txakurrarena... , hori neureganatu eta nirea egin bitartean, denbora pasatzen da, baina azkenean, nik kontatu dut ipuina, nire kontaketa bat da. Adibidez, Pio Barojaren narrazio luze bat kontatu nuen, Pio Barojan oinarritua. ‘Los pilotos de altura’ eta ‘La historia de capitan Tximista’, bi horiek hartu, pertsonaia bat sortu eta ordu eta erdiko istorio luze bat kontatu nuen, helduentzat.

Helduentzat ere kontatzen al dituzu istorioak?

Oso gutxitan, eskatzen ditadenean. Bi urtean behin, Koldo Mitxelena egiten dut halako emanaldi bat. Untzi Museoa ere bai. Orduan, noizean behin, istorio luze bat kontatu egiten dut eta istorio luze horiek izaten dira, edo nire gustuko autore bat, nire gustuko zerbeit, eta horietan oinarrituz istorio bat sortu eta horren inguruko kontaketa luze bat egiten dut.

Ipuin-kontalari izateko, ez da erraza... Horretarako ikastarorik ematen al dira?

Ez, hori norberak ikasten du. Eta horretarako ipuinaren zentzua oso ondo ulertu behar da. Baina barrenean ulertu behar da, ez da buruko gauza bat, tripetako gauza bat da. Azkenean, ipuin batek emozioak mugitzen ditu eta orduan zuk hori kontrolatu behar duzu.

Iker Azurmendi beasaindarra Txinan

2002tik Shangain da, lanean, Poyam-etik joanda

2002. urteko azaroan iritsi zen Txinara, Shanghaira, Iker Azurmendi beasaindarra, laneko kontuengatik. Urte beterako joan eta oraindik bertan jarraitzen du. Euskal Etxea sortu dute eta bertako lehendakaria ere bada.

Nolatan joan zara?

Duela 4 urte pasatxo, lantegiko zuzendaritzatik gure enpresaren presentzia Txinan ezinestekoa zela erabaki zen, eta asko pentsatu ondoren Txinara joatea erabaki nuen, alde batetik gazte eta osasuntsu sentitzen nintzelako, eta bestetik pertsonalki eta profesionalki osatzeko aukera paregabea ikusten nuelako.

Zein lan egiten duzu?

Idiazabalen kokatua dagoen Ampo Kooperatibaren lan egiten dut (Poyam Valves), eta erosketarako eta salmentarako Txinan ditugun bi ofizinen koordinatzailea naiz.

Zer moduz sentitzen zara hainbeste txinatarren artean?

Hasiera oso gogorra izan zen, egokitze hila batek pasa ziren, baina pixkanaka beraien kultura eta ohiturak ulertzen hasi nitzien. Beasain-Shanghai Shanghai-Beasain, ez dago konparatzerik. Shanghai 20 milioi biztanle dituen Txinako herrialde moderno eta garatua da Hong Kong-ekin batera, askotan leku lasai eta paketsuen bila ibiltzen naiz.



Euskaldunek osatutako futbol taldea ere badago Txinan. Kataluniaren aurka jokatu dute partiduren bat edo beste. Iker, beheko lerroan, eskuinetik basia, bigarrena da.

Bizimodua eta kultura ere erabat ezberdinak izango dira. Zaila egin al zaizu egokitzea? Zer izan da zailena?

Orokorrean Txinako gizarte gurearekiko oso ezberdinak dira, hemen gauzak ez dira sinple eta erraz lortzen, hasieran ia dena zaila da, baina dena da posible, ez da ezinezkorik. Planteatutako helburuak lortzeko, pazientzia eta esfortzua ezinbestekoa da.

Txinako gizartearen rolak aipatzearen, hizkuntza eta ulertze arazoak sarritan

ditugu. Adibidez, txinatar batek galdera bati "bai" erantzuten badu, askotan "beharbada" esan nahi du, "beharbada" erantzunak berriaz, askotan "ezezkoa" esan nahi du.

Zeren falta somatzen duzu?

Lehenik familia, distantzia handia dago bi herrialdeen artean eta ezinezkoa egiten zaigu elkarrekin egotea. Baita ere Euskal Herrian izaten ditugun astebukaerak ihesalditxoak. Hiri handi batetan bizitzeak bere mugak ere baditu, adibidez,

mendi irteerak, edo kirola kiroldegi batetik kanpo egi-teak.

Nola ikusten da Euskal Herria hain urrutitik?

Euska Herria oso herrialde txikia ikusten dut, txinatarrek ez gaituzte ezagutzen, alde batetik Txina bezalako nazio bat urte askotan atekaitxita izan dituelako, baina nire ustez euskaldunok ere oso gutxi dakigu Txinari buruz. Etorkizunari begira euskaldunok kanpora gehiago irten beharko genuke, bai lanera eta baita oporretara ere.

Autowag



☎ 943 888 254

☎ 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

Euskal Etxea

Euskal Etxea ere sortu duzue Shangain. Nolakoa da, zein lan egiten du, euskaldunentzako txoko garrantzitsua izango da ezta? Zein motatako ekintzak egiten dituzue?

Asia kontinentean dagoen Euskal Etxe bakarra da, 2005. urteko martxoan ireki genituen ateak eta Shanghai-en kokatua dagoen arren, Txinako Euskal Etxea da. Txinako gobernuak, Euskal Etxea bezalako elkarte bat entitate juridiko bat bezela ez du onartzen, beraz elkarte pribatu bat bezela soru genuen eta gaur egun aurkitzen garen 35 bazkide indibidual eta 11 bazkide korporatibo-en bitartez mantentzen dugu (SPRI, Ulma Construcción, Fagor Automation, Fagor Arrasate, Wingroup, Orkli, Ampo-Poyam, Metalocaucho, Cegasa, Danobat, Orbea).

Euskal Etxeko helburuen artean, Txina eta euskaldunon arteko lotura sortzea da. Txinan zehar (Shanghai, Pekin, Shenzhen, Ningbo, Tianjin,...) sakabanatuta gauden euskaldunon elkar puntua izatea ere bai, beti ere gure kultura eta hizkuntzaren inguru-



***Mabaiaren bueltan
elkartzeko zaleak gara
euskaldunok.
Txinako euskaldunek ere
bala jarraitzen diote
obiturari.
Babarrun jana egin
zutenekoa da argazkia.***

ruan ekintzak antolatuz. Ekintza horietako batzuk, ostiraletan antolatzen diren sukaldari ikastaroak dira (marmitakoa, almejak marinera erara, txipiroiak bere tintan,...). Aurten ere lehen aldiz Korrika antolatu dugu Txinan, Pekinetik hasi, Shenzhen-tik pasa eta Shanghai-en eman genion amaiera martxoaren 31n, lekukoa ikurrinarekin, pankartak eta 'ika ika ika, hemen dator korrika' kantalak, Shanghaiko kale nagusietan entzutea posible izan zen. Aberri eguna apirilaren



***Korrika15-aren eta euskararen mezua Txinara ere
iritsi da aurtengo martxoan.
Pekinetik hasi, Shenzhenetik pasa eta Shanghain
bukatu zen.***

8an ospatzekoak gara eta Txinako Euskal Selektzioak, Kataluniako Selektzioaren aurka futbol partidua antolatu dugu.

Informazio gehiagorako gure web orriaren helbidea hau da: www.chinaeuskal-etxea.com.



Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 881 944
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Sekundino Etnaola 8
Tel 943 721 078
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
Erdiko Kalea
Tel 943 711 804
Arrasate

O
I



xetai

www.xetai.net
Armairuak · Altzariak
Osagarriak

Tel.: 943 88 43 84
Oriamendi, 30
BEASAIN

LAGO

Udal hauteskundeetarako zerrendak

Maiatzaren 27an izango diren udal eta foru hauteskundeetarako zerrendak argitaratu ditu **GOIERRITARRA** aldizkariak hurrengo

orriotan. Dena den, informazio hau idazterakoan, zerrenda hauetako batzuk, legez kanpo utzi ala ez erabakitzen ari zen **Espainiako Auzitegi Konstituzionala**.

ALTZAGA

Partido Popular (PP)

1. Maria Angeles Arias Dominguez.
2. Monserrat Perez Lopez.
3. Antonio Jesus Ortiz Benavente.
4. Benito Javier Torre De La Fuente.
5. Pilar Teresa Blanco Lopez-Roso.

Altzagako Artea Taldea (A.A.T.)

1. Imanol Mujika Katarain.
2. Andoni Katarain Garmendia.
3. Miguel Angel Muñagorri Etxabe.
4. Joseba Aranzabe Goenaga.
5. Eider Sarasola Olano.

ARAMA

Partido Popular (PP)

1. Alvaro Rey Riveiro.
2. Antonio Lopez de Pablo Lopez.
3. Rosa Maria Lopez Merinero.
4. Delfina Ramos Marques.
5. Maria Dolores Tapia Fernandez.

Aramako Herri Batzarra (AHB)

1. Maria Jose Olazabal Aldasoro.
2. Miren Jasone Aranburu Garmendia.
3. Aitziber Albisu Insausti.
4. Ainhoa Mujika Otegi.
5. Aitor Furundarena Usabiaga.

Arama Lantzen (AL)

1. M.a Luisa Agirre Iribarren.
2. Unai Sarasa Mujika.
3. M.a Rosario Urretabizkaia Etxeberria.
4. Luis Garmendia Sagastume.
5. Iñigo Oiarbide Berasategi.

ATAUN

Partido Popular (PP)

1. Santiago Gayubo Serrano.
2. Maria del Carmen Martin Marinas.
3. Toribio Gallego Mena.
4. Lazaro Ocaña Ubeda.
5. Claudio Martin Muñoz.
6. Jacinta Gallego Oliva.
7. Petra Ausocua Sanz.
8. Juan Carlos Lopez Rodriguez.
9. David Rafael Garcia de Leonardo.

Herrigintza

1. Bitor Oroz Izagirre.
2. Jexux Goikoetxea Etxeberria.
3. Rosa Goñi Jaka.
4. Iñigo Goikoetxea Kortabarria.
5. Iñigo Kerejeta Aierbe.
6. Jose Bixente Goena Aierbe.

7. Rebeka Kayero Alkorta.
8. Naroa Goikoetxea Barandiaran.
9. Pedro Mari Agirre Arratibel.

Ataungo Abertzale Sozialistak

1. Francisco Javier Dorronsoro Plazaola.
2. Ainara Lasa Muñoz.
3. Aitor Arruabarrena Etxeberria.
4. Miren Edurne Goikoetxea Munduate.
5. Estebe Auzmendi Agirre.
6. Aloña Erauskin Barandiaran.
7. Aitzol Barandiaran Munduate.
8. Aiora Urdangarin Agirre.
9. Nagore Urdangarin Agirre.

Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra (PSOE)

1. Antonio Redondo Gomez.
2. Felix Gallardo Olmedo.
3. Manuel Fernandez Prieto.
4. Jose Monterroso Gordillo.
5. Juan Santiago Alonso Herrera.
6. Jose Luis Romarate zabala Agulla.
7. Miguel Angel Rodriguez Velasco.
8. Ramon Ledesma Coria.
9. Carlos Rivero Castejon.

Eusko Abertzale Ekintza (EAE/ANV)

1. Aitor Aldasoro Sukia.
2. Gorane Urdangarin Agirre.
3. Jose Maria Lizarraga Goikoetxea.
4. Miguel M.a Jauregi Apalategi.
5. Haizea Moreno Torres.
6. Irati Arratibel Zeberio.
7. Mikel Egiguren Imaz.
8. Naiara Munduate Dorronsoro.
9. Eneko Dorronsoro Agirre.

BEASAIN

Partido Popular (PP)

1. Julio Herreros Serna.
2. Gonzalo Zaldo y Arana.
3. Jesus Maches Huecas.
4. Lourdes Granado Alvarez.
5. Maria Cristina Gonzalez Acosta.
6. Carlos Maria Alvarez Badillo.
7. Jose Carlos Maldonado Tudela.
8. Pablo Rengifo Calderon.
9. Angustias Muñoz Jimenez.
10. Maria Angeles Muñoz Navarro.
11. Luis Enrique Valera Muguero.
12. Jorge Antonio Espinos Gozalvez.
13. Ana Alvarez Lopez.
14. Maria Alvarez Lopez.
15. Maria del Carmen Briso-Montano Moral.
16. Jose Ignacio Etxeberria Etxaniz.
17. Maria del Pilar Mendez Rocafort Area.

Euzko Alderdi Jeltzalea (EAJ-PNV)

1. Patxi Plazaola Muguruza.
2. Aitor Aldasoro Hurbe.
3. Maria Luisa Valles Fernandez.
4. Itziar Dorronsoro Ibarbia.
5. Iñigo Arrese Artabe.
6. Amaia Garcia Regil.
7. Arantza Aseginolaza Azkargorta.
8. Asier Arrese Zabala.
9. Arantza Gibelalde Inurritegi.
10. Xabier Insausti Sarasola.
11. Edurne Lasa Ugalde.
12. Maria Encarnacion Arrieta Telleria.
13. Mikel Arrizabalaga Aranburu.
14. Mikele Martinez de la Hidaiga.
15. Daniel Agirre Ugartemendia.
16. Garbiñe Beraza Arrese.
17. Iñaki Apaolaza Mujika.

Eusko Alkartasuna (EA)

1. Ion Kortaberria Lasa.
2. Juan Martin Aldaregia Etxebarria.
3. Jose Ignacio Insausti Mujika.
4. Maria Belen Callejo Mendiguren.
5. Ana Maria Lamata Tejedo.
6. Pedro Maria Garaialde Goikoetxea.
7. Josune Goenaga Alicortes.
8. Justo Urteaga Esnaola.
9. Gloria Chasco Santamaria.
10. Andres Telleria Telleria.
11. Maria Aranzazu Ugarte Azkarate.
12. Jose Antonio Ibaibarriaga Usabiaga.
13. Maria Teresa Ollakarizketa Argandena.
14. Jose Manuel Mendizabal Izagirre.
15. Maria Teresa Gonzalez Zurutuza.
16. Juan Aramendi Alberro.
17. Jose Imaz Aierbe.

Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra (PSOE)

1. Fernando Boada Gonzalez.
2. Maria Pilar Vispo Chamosa.
3. Alfonso Segade Gonzalez.
4. Maria Carmen Barradas Pintor.
5. Ana Maria Crespo Blanco.
6. Maria Carmen Gomez Mediavilla.
7. Maria Ines Elorza Mujika.
8. Alfredo Goñi Quel.
9. Ana Maria Fernandez Oviedo.
10. Leandro Sorio Vicho.
11. Jose Luis Elorza Mujika.
12. Jose Nuñez Robleda.
13. Jose Gabriel Zurbano Melero.
14. Isabel Alvarez Isidro.
15. Maria Mercedes Moreno Espada.
16. Maria Lourdes Arregi Aranburu.
17. Pablo Parra Moreno.

Beasain Abertzale Sozialistak (BAS)

1. Bixente Apalategi Mintegi.
2. Hirune Ramos Irizar.
3. Asier Imaz Telleria.
4. Ana Goreti Cobos Peralto.
5. Jokin Aldanondo Luzuriaga.
6. Maria Idoia Mendibil Lopetegi .
7. Jon Gorrotxategi Gorrotxategi.
8. Miren Josune Aiestaran Arregi.
9. Jose Manuel Urkiola Lasa.
10. Anate Bastida Izagirre.
11. Carlos Fernandino Barrenetxea.
12. Miren Lourdes Galarraga Zeberio.
13. Eneko Bueno Artola.
14. Jule Aranburu Mariezkorrena.
15. Josu Martin Lopez Castaños.
16. Miren Idoia Iranzuegi Mendizabal.
17. Juan Jose Lasa Matxain.

Eusko Abertzale Ekintza (EAE/ANV)

1. Joseba Mikel Olano Genbe.
2. Ainhoa Ibañez Garcia.
3. Iñaki Andoni Antxia Etxeberria.
4. Eider Murgiondo Mujika.
5. Anartz Mujika Berasaluze.
6. Maria Belen Sarasola Miralles.
7. Mikel Irastorza Aranburu.
8. Miren Maite Lasa Altuna.
9. Unai Olano Iurrita.
10. Maria Jesus Zeberio Aierbe.
11. Iñaki Aranburu Mintegi.
12. Nerea Manzisidor Mendizabal.
13. Jose Luis Lasa Altuna.
14. Maria Milagros Izagirre Iriondo.
15. Aitor Mendizabal San Sebastian.
16. Arrate Izagirre Iriondo.

EkzerBatua-Berdeak y Aralar (B-B/A)

1. Begoña Lasa Royuela.
2. Julene Hidalgo Perez.
3. Garbiñe Zurutuza Fernandez.
4. Fabian Hidalgo Perez.
5. Mikel Zurbano Irizar.
6. M.a Loinaz Fernandez Lasa.
7. Antonio Apalategi Bahillo. (Ind.).
8. Mercedes Saavedra Rodriguez.
9. Tomas Parra Pascual.
10. Mikel Anton Silvestre.
11. Beatriz Urkola Lopez.
12. Antonio Montoya Zamora.
13. Concepcion Litago Prat.
14. Jon Lopez Cea.
15. Tania Leon Piñeiro.
16. Adoracion Heredia Simon.
17. D. Vicente Otaegi Gorostiaga.

EZKIO-ITSASO

Partido Popular (PP)

1. Manuel G. Gila Hernan.
2. Ana Isabel Antigüedad García.
3. Miguel Jose Zurita Becerril.
4. Adriana Castañeda Lopez.
5. Angeles García Sanchez.
6. Jose Luis Romero Gracia.
7. Agustin Calvo Esteban.

Ezkio-Itsaso Elkarlanean

1. Tomas Etxaniz Mendiguren.
2. Jaione Sasieta Barrenetxea.
3. Aitziber Etxezarreta Arakistain.
4. Joseba Aldanondo Otegi.

5. Ignacio Galdos Arsuaga.
6. Xabier Akizu Ormaetxea.
7. Ruth Idiakez Alberdi.

Ezkio-Itsaso Herrikideak

1. Jose Ignacio Etxezarreta Estala.
2. Maria Jose Telleria Goikoetxea.
3. Luis Maria Torres Oiarbide.
4. Pedro Manuel Alberdi Elgarresta.
5. Jose Maria Zumarraga Esnal.
6. Miguel Maria Igartua Anduaga.
7. Ander Unzurrunzaga Idiakez.

GABIRIA

Partido Popular (PP)

1. Maria Lopez-Roberts Fernandez.
2. Juan Carlos Atxa Romeo.
3. Maria del Carmen Ibañez Ballesteros.
4. Oscar M. Gila Maderuelo.
5. Eduardo Santos Guada.
6. Jesus Adriano Valverde Bocanegra.
7. Maria Pia Espel Urien.

«Gabiria» Hautesle Elkarteak

1. Miren Ainhoa Aizpuru Murua.
2. Juan Jose Arrondo Bereziartua.
3. Ignacio Javier Arratibel Txintxurreta.
4. Maria Angeles Atin Arratibel.
5. Iker Etxezarreta Eiguren.
6. Josu Elgarresta Asurabarrena.
7. Aritz Peñagarikano Lobato.

Eusko Abertzale Ekintza (EAE-ANV)

1. Chaya Gallego Garcia.
2. Asier Osinalde Iturbe.
3. Maria Lourdes Ulazia Aizpurua.
4. D. Fermin Otamendi Arburua.
5. Maria de Lourdes Zuaitz Lasa.
6. Enaut Igarzabal Jauregi.
7. Mikel Osinalde Aztiria.

GAINTZA

Partido Popular (PP)

1. Mercedes Hernando Revuelta.
2. Ariane Cardiel Blasco.
3. Carmen Pilar Blasco Palmero.
4. M. de las Mercedes Gonzalez Martinez.
5. Jaime Jesus Perez Martin.

Gaintzako Herritarrak (GH)

1. Ignacio Javier Garmendia Arruabarrena.
2. Santiago Fermin Garmendia Gorostidi.
3. Mikel Garmendia Sukia.
4. Jose Ignacio Irastorza Garmendia.
5. Maria Rosario Olano Gorostidi.

IDIAZABAL

Partido Popular(PP)

1. Pablo Martin Rodilla.
2. Hector Perez Ramos.
3. Miguel Sanchez Recio.
4. Teresa Pampanas Sanchez-Roldan.
5. Jose Luis Ferrer Arias.
6. Maria Teresa Vozmediano Gomez.
7. Lisardo Hernandez Bonaque.
8. Gema Diaz-Salazar Fernandez.
9. Araceli Bermejo Pindado.
10. Francisco Guerrero Baez.
11. Manuel Mora Sanchez Paulette.

Partido Socialista de Euskadi - Euskadiko Ezkerra (PSOE)

1. Manuel Antonio Amaral Ferreira.
2. Salvador Marzana Amuategi.
3. Jesus Maria Alonso Valle.
4. Matilde Rodriguez Gil.
5. Antonio Huegun Lertxundi.
6. Maria Pilar Jimenez jimenez.
7. Jose Antonio Bueno Fernandez.
8. Salvador Garrido Bravo.
9. Manuel Correyero Martin.
10. Maria Pilar Gasco Gonzalo.
11. Francisco (Alberto) Buen Lacambra.

Idiazabalgo Abertzale Sozialistak

1. Aimar Lizarazu Iztueta.
2. Aintzane Zabala Urizar.
3. Ion Telleria Barrena.
4. Eider Katarain Azaldegi.
5. Angel Oiarbide Ruiz.
6. Maria Esther Mundute Maiza.
7. Xabier Intxausti Barandiaran.
8. Ioana Prados Alustiza.
9. Martin Lizarazu Leizeaga.
10. Maria Josefa Iparragirre Alustiza.
11. Argoitz Urrestarazu Lazkano.

Eusko Abertzale Ekintza (EAE/ANV)

1. Iñaki Alberdi Iparragirre.
2. Anartz Alustiza Prados.
3. Aitor Urrestarazu Lazkano.
4. Olatz Lizarralde Araiztegi.
5. Artzeiz Mujika Zubiarrein.
6. M.a Carmen Iztueta Jauregi.
7. Mikel Mendizabal Ormazabal.
8. Uxune Alustiza Lizarazu.
9. Jose Agustin Urteaga Usandizaga.
10. Lorea Katarain Azaldegi.
11. Miguel Angel Goikoetxea Goikoetxea.

Izal Bai

1. Antonio Irizar Imaz.
2. Ioritz Imaz Baztarrika.
3. Jose Luis San Sebastian Aranburu.
4. Iñaki Goiburu Imaz.
5. Maria Monserrat Delgado Agirre.
6. Aner Elorza Ezizola.
7. Jesus Maria Insausti Larrea.
8. Xabier Ariztimuño Iparragirre.
9. Kepa Oiarbide Labaka.
10. Victor Maria Esnaola Lete.
11. Asier Oiarbide Aldasoro.

ITSASONDO

Partido Popular(PP)

1. Manuela Ruiz Rodriguez.
2. Antonio Bautista Vilela.
3. Maria Pilar Santori Samaniego.
4. Maria del Carmen Toledano Vega.
5. Carmen Santamaria Labarta.
6. Maria Iglesia Martin.
7. Cristina Maestre Urbina.

Itsasondo Abertzale Sozialistak (I.A.S)

1. Amagoia Etxeberria Pikabea.
2. Jose Angel Mintegi Eskisabel.
3. Blanca Esther Mujika Saralegi.
4. Ander Otegi Unanue.
5. Nagore Etxeberria Pikabea.
6. Iker Mendizabal Garro.
7. Maria Jose Etxeberria Pascual.

Eusko Abertzale Ekintza (EAE/ANV)

1. Xabier Iturrioz Oiarbide.
2. Maria Rosario Noguera Gorriti.
3. Danel Etxeberria Pascual.
4. Gorka Martinez Urdangarin.
5. Miguel Antonio Mendizabal Garmendia.
6. Haizea Arruti Mendizabal.
7. Imanol Iturrioz Oiarbide.

LAZKAO

Partido Popular (PP)

1. Pablo Casais Cob.
2. Rosario Gomez Fernandez.
3. M. Pilar Gonzalez - Cremon Nogales.
4. Luis Peral Guerra.
5. Jorge Tapia Saez.
6. Javier Garcia Oliver.
7. Alvaro Mayoral Sola.
8. Antonio Luis Gomez Martos.
9. M. C. V. Riveiro Lopez - Rioboo.
10. Angeles Fernandez Berriguete.
11. Federico Olmedo Lucinni.
12. Lourdes Basabe OShea.
13. Maria Luisa Ramirez Arozamena.

Eusko Alkartasuna (EA)

1. Kepa Goenaga Alikostes.
2. Maialen Aldasoro Aranburu
3. Asier Sarriegi Zumarraga.
4. Arantxa Zumelaga Agirre.
5. Inaki Arruabarrena Barandiaran.
6. Mila Insausti Jauregi (Ind.).
7. Gorka Munduate Otermin. (Ind.).
8. Maixabel Enparanza Leunda (Ind.).
9. Martin M. a Aranburu Iturrioz.
10. Kepa Zubiarraín Erauskin.
11. Inaki Mendizabal Ezkerra. (Ind.).
12. Jose Luis de Miguel Diez. (Ind.).
13. Inaki Agirre Larranaga.

Partido Socialista de Euskadi -

Euskadiko Ezkerra (P S O E)

1. Juan Manuel Serna Portugal.
2. Angel Hernandez Marzal.
3. Gregoria Espada Arias.
4. Maria Begona Lopez Benito.
5. Alejandro Crespo Gallego.
6. Carlos Pallares Villanazo.
7. Antonia Luis Rodriguez.
8. Benito Eloy Santibanez Martin.
9. M. P. Anunciacion Sanchez Hernandez.
10. Felix Cantero Cubillo.
11. Jose Bautista Cano.
12. Maria Rocio Acosta Alfonso.
13. Luisa Avila Perez.

Eusko Abertzale Ekintza (EAE/ANV)

1. Igortz Badiola Arratibel.
2. Irantzu Amundarain Irizar
3. Joseba Hernandez Medinabeitia.
4. Ane Elisabet Gurrutxaga Dorronsoro.
5. Fermin Mendia Zuntzunegi.
6. Sara Villanueva Eskortza.
7. Patxi Madariaga Irastorza.
8. Maria Jesus Insausti Onda.
9. Artzeiz Aldanondo Urkia.
10. Mariela Perez Sarria.
11. Gaizka Miguez Gonzalez.
12. Isidra Muxika Esnaola.
13. Aitzol Garmendia Insausti.

Lazkaoko Abertzale Sozialistak (LAS)

1. Garikoitz Mujika Zubiarraín.
2. Anitz Eskisabel Barandiaran.
3. Juan Mari Begiristain Aranzasti.
4. Maider Unanue Estensoro.
5. Asier Herrero Sanchez.
6. Maialen Amundarain Irizar.
7. Angel Estala Arratibel.
8. Maria Carmen Baztarrika Urbiztondo.
9. Antonio Irastorza Madariaga
10. Maria Milagros Aldasoro Begiristain.
11. Martin Aldasoro Agirre.
12. Idoia Azpiroz Peña.
13. Angel Maria Jaso Insausti.

Euzko Alderdi Jeltzalea (EAJ-PNV)

1. Patxi Albisu Estensoro.
2. Felix M.a Urkola Iriarte.
3. Amagoia Naldaz Mingo.
4. Xanet Barreras Jauregi.
5. M.a Lourdes Garmendia Guerra.
6. Jabier Arrasate Aierbe.
7. Inazio Estensoro Eskisabel.
8. Ana Irastorza Izagirre.
9. Inazio Barandiaran Aldasoro.
10. Ana M.a Igarzabal Arrieta.
11. Jose Eskisabel Barandiaran.
12. Arantxa Muxika Belamendia.
13. Felix Ramos Aragon.

EzkerBatua-Berdeak eta Aralar (EB-B/A)

1. Iñaki Saldaña Herrero.
2. Xabier Ayala Fuidio.
3. Carolina Ariz Jimenez.
4. Candido Ordoñez de la Plaza.
5. Isabel Cascajada Villaran.
6. Jose Luis Ferro Sobrino.
7. Marco Antonio Muñoz Chao.
8. Florentina Muñoz Sanchez.
9. Marcelino Nieto Torres.
10. Miren Edurne Cornejo Vargas.
11. Arturo Rodrigo Lozano.
12. Julia Davila Carmona.
13. Mariano Garcia Fuentes.

LEGORRETA

Partido Popular(PP)

1. Angel Revilla Macho.
2. Raul Sanchez Conejo.
3. Francisco Cordero Lopez.
4. Jose Maria Marin Toledano.
5. Jose Manuel Martin Rodriguez.
6. C. Enrique Gatell Ruiz de Gordejuela.
7. Maria Gloria Rodriguez Parrilla.
8. Rafael Jose Beltran Bel.
9. Manuel Rodriguez Florez.

Partido Socialista de Euskadi- Euskadiko Ezkerra (PSOE)

1. Juan Pedro Risco Romero.
2. Gerardo Corcoles Valenciano.
3. Gabriela Estevez Baez.
4. Antonio Nieto Mancebo.
5. Manuel Ignacio Ugarte Vila.
6. Jose Manuel Galache Tabernero.
7. M.a Luz Arregi Mallabiabarrena.
8. Angel del Barco de la Poza.
9. Edurne Landa Egilaz.

Legorretako Abertzale Sozialistak

1. Javier Larrauri Apaolaza.
2. Nekane Iturrioz Amondarain.
3. Beñat Jauregi Nazabal.
4. Erika Iparragirre Gaztañaga.
5. Iker Oiarbide Munduate.
6. Eneko Guerrero Aldasoro.
7. Edurne Bidekietta Eskisabel.
7. Izaro Jauregi Nazabal.
8. Jon Patxi Salazar Perez de Arriluzea.

Euzko Alderdi Jeltzalea (EAJ-PNV)

1. Xabier Iraola Agirrezabala.
2. Izaskun Zubeldia Otegi.
3. Juan Antonio Garin Oruezabal.
4. Izaskun Jauregi Ugartemendia.
5. Joxe Mari Lasa Sarasola.
6. Joxe Manuel Etxeberria Iturrioz.
7. Isabel Amondarain Agirre.
8. Bakarne Garmendia Etxeberria.
9. Joxe Mujika Garmendia.

Eusko Abertzale Ekintza (EAE/ANV)

1. Iñaki Oiarbide Munduate.
2. Haritz Gorostidi Iriondo.
3. Esteban Perez Arrospide.
4. Urko Etxeberria Urretabizkaia.
5. Maria Paz Garmendia Esnaola.
6. Maria Carmen Gaztañaga Urkola.
7. D. Jose Manuel Larrea Lasa.
8. Maria Angeles Lasa Otermin.
9. Agurtzane Iturbe Tolosa.

Eusko Alkartasuna (EA)

1. Pili Martiarena Garmendia.
2. Miguel Angel Gil Gonzalez.
3. Lorenzo Garcia Salas.
4. Maria Francisca Imaz Goikoetxea.
5. Iñaki Esnal Arizabalaga.
6. Concepcion Arratibel Dorronsoro.
7. Miguel Maria Martin Egurza.
8. Maria Agustina Iturralde Quilez.
9. Luis Maria Lacar Jaurena.

MUTILOA

Partido Popular (PP)

1. Maria Jose Menendez Oliver.
2. Miguel Angel Lopez Lozano.
3. Barbara Lloret Padron.
4. Belen Virto Estrada.
5. Marta Fernandez Busto.

Mutiloako Herri Kandidatura

1. Iñaki Ugalde Alustiza.
2. Pello Mikel Pinto Baptista.
3. Iñigo Apaolaza Apaolaza.
4. Juana Murgiondo Alustiza.
5. Gotzon Urrutia Ansoleaga.

OLABERRIA

Partido Popular (PP)

1. Luis Maria Miguel Cardenas.
2. Concepcion Tundidor San Martin.
3. Jose Asencio Ramos Benavente.
4. Carlos Rodriguez Torres.
5. Hector Rodriguez Parrilla.
6. Santiago Granja Sastre.
7. Angela Lastra Gonzalez.

Euzko Alderdi Jeltzalea (EAJ-PNV)

1. Agurtzane Arrieta Urdangarin.
2. Jose Manuel Garrido Fernandez.
3. J. Bixente Mendez Salvador.
4. Xabier Txurruka Gabarain.
5. Jose Bernardo Aldasoro Insausti.
6. Isidoro Otero Mier.
7. Ivan Gomez Docampo.

Olaberriarekin eta Olaberritarrak (OEO)

1. Txomin Mendoza Perez.
2. Jokin Garmendia Asurabarrena.
3. Jose Antonio Medeiros Nuñez.
4. Juan Jose Amoztegi Makazaga.
5. Jon Lasa Arrizubieta.
6. Oneski Aranburu Mariezkurrena.
7. Joseba Barandiaran Estala.

Partido Socialista de Euskadi - Euskadiko Ezkerra (PSOE)

1. Maria Enriqueta Rodriguez Collado.
2. Ivan Santibañez Acosta.
3. Jose Manuel Casado Lopez.
4. Maria Luisa Pajares Bermejo.
5. Luis Fernando Hernandez Lorenzo.
6. Felipe Sorio Aguilar.
7. Blas Fuentes Maestro.

Euzko Abertzale Ekintza (EAE/ANV)

1. Aitor Urkiola Ugartemendia.
2. Jon Zubiarraín Lasa.
3. Aitziber Sarasola Azurmendi.
4. Garikoitz Arrieta Zubeldia.
5. Pedro Jose Jauregi Garcia.
6. Igor Heras Urzelai.
7. Elena Uranga Garziarena.

Olaberriko Abertzale Sozialistak (OAS)

1. Axier Mujika Zubiarraín.
2. Jose Javier Lasa Arbulu.
3. Ainhoa Goiburu Eskitxabel.
4. Jose Luis Urteaga Arruabarrena.
5. Eurne Izaguirre Arriaga.
6. Elena Alonso Garate.
7. Francisco Javier Mujika Vitoria.

ORDIZIA

Partido Popular (PP)

1. Iñigo Maria Manrique Cia.
2. Angel Donesteve Velazquez-Gaztelu.
3. Borja Pascual Iribarren.
4. Maria Cristina Arguello Hoyo.
5. Maria Begoña Ortiz de Avendaño.
6. Belen Barrientos Lostau.
7. Maria Paloma de Asis Rivas.
8. Maria Dolores Asis Rivas.
9. Angel Sanchez de la Torre.
10. Angel Jose Sanchez Navarro.
11. Maria Isabel Mesa Otero.
12. Teresa Orfila Otermin.
13. Rafael Antonio Hernando Fraile.

Partido Socialista de Euskadi - Euskadiko Ezkerra (PSOE)

1. Ignacio Dubreuil Txurruka.
2. Monica Marañon Basarte.
3. Jose Antonio Rebollo Hernandez.
4. Jose Javier Lopez Fernandez.
5. Maria Angeles Muñoz del Castillo.
6. Jose Tapia Escriña.

7. Maria Elena Dopazo Martin.
8. Luis Jimeno Sanchez.
9. Maria Milagros Sanz Roa.
10. Antonio Dopazo Alvarez.
11. Maria Carmen Mir Fernandez.
12. Maria Cambil Joyas.
13. Jesus Alecha Okariz.

Euzko Alkartasuna (EA)

1. Belen Maiza Urrestarazu.
2. Joxe Arizmendi Berakoetxea (Ind.).
3. Agurtzane Antoñana Arizmendi. (Ind.).
4. Iban Asenjo Garde.
5. Raul Lacalle Usabiaga (Ind.).
6. Jose Luis de Castro Izquierdo. (Ind.).
7. Ana Fernandez Agirre.
8. Sabino Alberdi Nagalde.
9. Pedro Gorrotxategi Iparragirre. (Ind.).
10. Amaia Antoñana Arizmendi. (Ind.).
11. Gregorio Etxeberria Erauskin.
12. Elu Gaztañaga Martinez.
13. Juan Antonio Eraso Villar.

Ordiziako Abertzale Sozialistak

1. Angel Lasa Jauregi.
2. Lierni Iztueta Mendizabal.
3. Jose Ignacio Azurmendi Altuna.
4. Miren Begoña Korta Karrión.
5. Aitor Martinez de Olcoz Amilibia.
6. Maria del Carmen Alloza Garate.
7. Francisco Javier Masid Balda.
8. Ana Carmen Zurutuza Otegi.
9. Jose Ignacio Aizpuru Uriarte.
10. Rosa Maria Goitia Auzmendi.
11. Norberto Muñoz Elosegi.
12. Miren Arantzazu Murua Agirre.
13. Miren Mirari Zurutuza Otegi.

Euzko Alderdi Jeltzalea (EAJ-PNV)

1. Jose Miguel Santamaria Ezeiza.
2. Jon Txurruka Etchezarreta (Ind.).
3. Alejandra Iturrioz Unzueta.
4. Arantxa Garmendia Baztarrika. (Ind.).
5. Miren Auzmendi Urkiola.
6. Joseba Ormazabal Lopez.
7. Maite Iraeta Yañez.
8. Jose Antonio Oartzabal Artola.
9. Maribel Zufiaur Ormazabal.
10. M.a Carmen Lopez Iurretgoiena.
11. Juan Vicente Erauskin Garmendia.
12. Juana Urkiola Rezola.
13. Julen Bereziartua Estensoro.

Euzko Abertzale Ekintza (EAE/ANV)

1. Enrique Redondo Caverio.
2. Ramon Amundarain Otegi.
3. Amaia Iztueta Mendizabal.
4. Jone Etxeberria Agirre.
5. Naiara Garmendia Otegi.
6. Julen Agirre Iturrioz.
7. Alberto Calvillo Zurutuza.
8. Idoia Arteaga Garcia.
9. Carlos Marañon Vicario.
10. Micaela Iztueta Arratibel.
11. Pedro Jose Eskisabel Polanco.
12. Eñaut Gereñu Mujika.
13. Jose Maria Barandiaran Dorrosoro.

Ezker Batua-Berdeak eta Aralar (EB-B/A)

1. Maialen Galparsoro Odriozola.

2. Mikel Leunda Senperena.
3. Leonor Uranga Saiz.
4. Martin Zurbano Irizar.
5. Carlos Gonzalez Astiz.
6. Jon Aiestaran Aranburu.
7. Marisol Viana Alvarez.
8. Koldo Auzmendi Aierbe.
9. Julian Carrasco Obregon.
10. Nerea Tejeria Iriarte.
11. Manolo Sanchez Vazquez.
12. Beatriz Egizabal Ollokiegi.
13. Silvestre Galparsoro Arruabarrena.

ORMAIZTEGI

Partido Popular (PP)

1. Marian Camison Ojalvo.
2. E. Carlos Martinez de Galinosa de Vega.
3. Manuel De Las Heras Miedes.
4. Victor Manuel Carretero Barbero.
5. Francisco Santos Folgado.
6. Jose España Fernandez.
7. Rafael De La Brena Sanchez.
8. Oscar Carrasco Gomez.
9. M. L. Gild de Biedma Vega de Seoane.

Partido Socialista de Euskadi - Euskadiko Ezkerra (PSOE)

1. Maria Pilar Salom Julian.
2. Jose Fernandez Zubimendi.
3. Alicia Jacinta Peral Susan.
4. Julio Lapeira Gisasola.
5. Maria Asuncion Arrieta Unzueta.
6. Faustino Hernandez Sequera.
7. Maria Vicente Etxeberria Agirre.
8. Juan Antonio Mendes Diaz.
9. Angel Garcia Ronda.

Ormaiztegiko Abertzale Sozialistak

1. Unai Gabirondo Guerrero.
2. Jon Andoni Agirre Alzuru.
3. Nerea Mendizabal Irastorza.
4. Daniel Lerma Zornoza.
5. Mikel Zufiria Eizmendi.
6. Maria Begoña Eskisabel Ubago.
7. Unai Barrenetxea Lete.
8. Julian Zabala Berasategi.
9. Joseba Izaguirre Intxauspe.

Ormaiztegiko Herri Taldea

1. Sabino Ezkurdia Mujika.
2. Miren Gurutze Arrieta Goiri.
3. Juan Lobato Amado.
4. Maria Martinez Calero.
5. Jose Lorenzo Murua Argietxe.
6. Maria Rosario Sagarna Garmendia.
7. Erkuden Murua Uribe-Etxebarria.
8. Jose Ignacio Tolosa Lekuona.
9. Ignacio Maria Urdangarin Begristain.

Orbel Ormaiztegiko Bizilagunak Elkarlanean

1. Jon Miren Intxausti Ugalde.
2. Idoia Irizar Asurabarrena.
3. Haritz Maiz Baztarrika.
4. Xabier Lasa Balzategi.
5. Juan Carlos Diez Soto.
6. Jose Luis Telleria Goiburu.
7. Maria Angeles Biurrun Perez.
8. Izaskun Nuñez Iurrita.
9. Maria Belen Iza Iurrita.

Eusko Abertzale Ekintza (EAE-ANV)

1. Xabier Elorza Saez de Egilaz.
2. Aitor Mazorriaga Azpiazu.
3. Amalur Cuesta Otegi.
4. Andoni Mendizabal Irastorza.
5. Elixabete Jaka Irizar.
6. Jose Maria Iurrita Arregi.
7. Amaia Iturri Urkia.
8. Ignacio Sasieta Lizarralde.
9. M. Agurtzane Armendariz Arruabarrena.

SEGURA

Partido Popular (PP)

1. Victor Pardina Desembre.
2. Francisco Faz Olivencia.
3. Cesar Rina Simon.
4. Enrique Urreta Alvarez.
5. Maria del Carmen Martinez Castro.
6. Ramon Agirre Rodriguez.
7. Fernando Barranco Ruiz.
8. Benito Martin Ortega.
9. Jose Miguel Llamas Jimenez.

Segurako Abertzale Sozialista

1. Luis Maria Telleria Lezeta.
2. Inaki Garaialde Salsamendi.
3. Aitzol Telleria Gabiria.
4. Markel Telleria Lapizondo.
5. Marcelino Elorza Izeta.
6. Felix Lardizabal Arrondo.
7. Oier Berasategi Gerriko.
8. Leandro Elorza Izeta.
9. Salvador Agirre Oiarbide.

Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra (PSOE)

1. Jesus Carrillo Anibarro.
2. Manuel Compadre Vargas.
3. Rafael Rojo Gutierrez.
4. Guillermo Etxenike Gonzalez.
5. Manuel Fernandez Berdasco.
6. Francisco Fernandez Ferreiro.
7. Luis Ayuso De La Fuente.
8. Lorenzo Alagon Peinado.
9. Jose Luis Zurbano Ruiz.

Eusko Abertzale Ekintza (EAE-ANV)

1. Inaki Montero Zabala.
2. Izaskun Okariz Elorza.
3. Eñaut Telleria Urkia.
4. Egoitz Apaolaza Goena.
5. Miren Jaione Telleria Albizu.
6. Arraitz Sodupe Intxausti.
7. Etor Telleria Sarriegi.
8. Agurtzane Agirre Salsamendi.
9. Inge Olano Legorburu.

Segura Lantzen

1. Maria Isabel Telleria Urbizu.
2. Mikel Areizaga Camara.
3. Maria del Carmen Ariztimuño Alustiza.
4. Manuel Errezula Saizar.
5. Jose Maria Izagirre Alustiza.
6. Francisco Javier Olaziregi Telleria.
7. Xanet Garmendia Aldanondo.
8. Ignacio Ormazabal Alustiza.
9. Jose Manuel Etxeberria Zubizarreta.

ZALDIBIA

Partido Popular(PP)

1. Francisco Javier Domene Arevalo.
2. Juan Gallardo Matas.
3. Maria del Carmen Gonzalez Adrados.
4. Maria Nieves Gutierrez Martinez-Conde.
5. Jose Mangas Rodriguez.
6. Carlos Martin Muñumer.
7. Maria del Transito San Roman Nuñez.
8. Maria Luisa Jimenez Galavis.
9. Santiago Gayubo Hernando.

Partido Socialista de Euskadi - Euskadiko Ezkerra (PSOE)

1. Irma Jauregi Atondo.
2. Maria Carmen Corcoles Valenciano.
3. Mariano Angel Rodriguez Cacho.
4. Juan Carlos Hernandez Garrido.
5. Isaac Gonzalez Solozabal.
6. Miguel Maria Coteria Pardo.
7. Maria Pilar Carlos Gomez.
8. Francisco Garcia Sanchez.
9. Federico Santamaria Rodriguez.

Aralar

1. Francisco Maria Aierbe Urbiztondo.
2. Damian Garmendia Etxabe.
3. Maria Jesus Jauregi Jauregi.
4. J. Ramon Irastorza Arruebarrena. (Ind.).
5. Maria Jose Urteaga Regil. (Ind.).
6. Jesus Sukia Esnaola. (Ind.).
7. Juan Castor Imaz Etxabe. (Ind.).
8. Jose Maria Garmendia Garmendia.
9. Jose Ignacio Irastorza armendariz.

Eusko Abertzale Ekintza (EAE/ANV)

1. Amaia Etxabe Nazabal.
2. Jose Gregorio Matxain Garmendia.
3. Aitziber Irazusta Goikoetxea.
4. Garikoitz Nazabal Etxabe.
5. Maria Arantzazu Aiestaran Amondarain.
6. Aitzol Jauregi Amundarain.
7. Maria Belen Azketa Garmendia.
8. Aitor Garmendia Arruabarrena.
9. Garbiñe Aranburu Irazusta.

Zaldibiako Abertzale Sozialistak

1. Jesus Maria Jauregi Beloki.
2. M.a Asuncion Mariezkurrena Maran.
3. Iker Atxotegi Sukia.
4. Maria Milagros Altuna Arritegi.
5. Joseba Erramun Murua Etxabe.
6. Maria Teresa Begiristain Otamendi.
7. Dionisio Agirre Mendizabal.
8. Maria Jose Garmendia Tolosa.
9. Jose Joaquin Zubeldia Aranburu.

ZEGAMA

Partido Popular (PP)

1. Jose Vicedo Sanchez.
2. Cristina Delgado De Robles Sanguino.
3. Octavio Huelamo Romero.
4. Carlos Alonso Mauricio.
5. Enrique Lopez Martinez.
6. Josefina Aneiros Diaz.
7. Angeles Moreta Espada.
8. Maria del Pilar Ramo Morales.
9. Ramon Gallego Morales.

Zegamako Abertzale Sozialista

1. Angel Irigoras Ormazabal.
2. Maria Inmaculada Berriozabal Bernas.
3. Jose Izagirre Mendiaraz.
4. Olaia Elorza Iñarra.
5. Andres Urbizu Murgiondo.
6. M.Elena Asurmendi Gorostizu-Olaiztegi.
7. Angel Gomez Torres.
8. Iosune Irastorza Aizpeolea.
9. Jose Maria Arakama Larrea.

Partido Socialista de Euskadi - Euskadiko Ezkerra (PSOE)

1. Francisco Javier Alonso San Vicente.
2. Francisco Frias Montoya.
3. Matias Peral Lopez.
4. Rafael Del Valle Fernandez.
5. Rogelio Garcia Suarez.
6. Angel Perez Garcia.
7. Avelino Basoredo Lorenzo.
8. Benigno Tomas Riera Huerta.
9. Gema Gonzalez Fernandez.

Zegama Lantzen

1. Miren Edurne Albizu Ormazabal.
2. Carlos Ormazabal Urbizu.
3. Asier Elizegi Arrizabalaga.
4. Joseba Izagirre Arozena.
5. Maria Pilar Elorza Intxausti.
6. Izaskun Igoa Arizkorreta.
7. Eli Arrieta Ugartemendia.
8. Juan Jose Gorrotxategi Landa.
9. Aitor Galdos Larrea.

Eusko Abertzale Ekintza (EAE-ANV)

1. Jose Ramon Agirre Berasategi.
2. Eneritz Arrondo Maguregi.
3. Jose Antonio Irigoras Ormazabal.
4. Jaione Gorrotxategi Arrieta.
5. Imanol Garmendia Iruretagoiena.
6. Eider Arrieta Azurmendi.
7. Ramon Otaegi Berasategi.
8. Jon Berasategi Larrea.
9. Maria Luisa Gorrotxategi Irastorza.

ZERAIN

Partido Popular(PP)

1. Maria Angeles Pino Henandez.
2. Enrique Rios Hernandez.
3. Maria Antonia Franco Martinez.
4. Maria Esther Pizarro Martin.
5. Esperanza Marquez Gomez.

Zeraingo Herri Kandidatura

1. Jose Manuel Oria Alustiza.
2. Andoni Alustiza Etxaluze.
3. Aitziber Makatzaga Alustiza.
4. Maria Jesus Mendizabal Elizegi.
5. Haritz Eguren Urrestarazu.

Lazkaon,



egin behar dugu

Patxi Albisu Estensoro

Lazkaoko Alkatetzarako
hautagaia.



Beasainen,



egin behar dugu

Patxi Plazaola Muguruza

Beasaingo Alkatetzarako
hautagaia.

Olaberrian,



egin behar dugu

Agurtzane Arrieta Urdangarin

Olaberriako Alkatetzarako
hautagaia.



Legorretan,



egin behar dugu

Xabier Iraola Agirrezabala

Legorretako Alkatetzarako
hautagaia.

Ordizian,



egin behar dugu

Jose Miguel Santamaria Ezeiza

Ordiziako Alkatetzarako
hautagaia.



'Saioa', saiatzen

*Saioa Garin
legorretar
abeslari
gaztea*



Gitarra eta harmonika lagun, pop, folk eta country berriaren arteko nahasketaren doinuak sortu ditu Saioa Garin legorretarrak. Ingelesezt eta euskaraz kanporatzen ditu barneko senti-

menduak. Beasaingo Moonpalace records diskoetxearekin, 6 kantuko 'Particular land' ep-a kaleratu du. 28 urte ditu eta musikaren aldeko apustua egiteko prest dago.

● Pintxo hotz eta beroak
● Ogitaratekoak

Legazpi kalea, 3 ORDIZIA ☎ 943 16 03 04

- ✕ Jabekideen komunitatea osatzea
- ✕ Komunitateen kontabilitatea
- ✕ Akten idazketa
- ✕ Aurrekontuen eskaera
- ✕ Aholkularitza legala
- ✕ e.a.

AUZOKI
Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486

Noiztik zabiltza musika munduan?

Jendaurrean jotzen, hilabete gutxi. Otsailaren 19an diskoa kaleratu nuenetik hona egin ditudanak eta beste askorik ez. Jotzen bai, jotzen urte asko darrazkit, hamar bat. Legorretara gitarra klaseak ematera irakasle bat etortzen zen eta harekin ibili nintzen utzi eta hasi, utzi eta hasi. Solfeorik ez daukat eta kantu bat gustatzen zitzaidanean berarengana joan eta ikasi egiten nuen. 'Sol mayor' zer zen ere ez nekien. Behatzak horrela eta horrela jarri behar nituela esan eta horrela aritzen nintzen. Gero, nire kasa aritu naiz, etxean.

Autodidakta zara orduan.

Solfeorik ez daukat. Baina nik jotzen dudana, ez da bilatua. Nik orain gehixeago ulertzen dut eta badakit akordeak existitzen direla. Orain armoniako klasera joaten hasi naiz, gehiago interesatzen zaidalako. Zentzu batean bai, autodidakta naiz. Konposizioan behintzat bai, orain arte inork ez dit esan nondik jo.

Jendaurreko pausoa ematera, nolatan animatu zara?

2004. urtean Donostia Hiria sarian hirugarren egin nuen. Udan izan zen. Karrera bukatuta, ezer ez neukan, lanik ez zen ateratzen, nahikoa galduta bezala nengoen, abesti batzuk banekizkan, nire ahizpari behintzat gustatzen zitzaizkion eta horrela probatu nuen. Donostiako estudio batera joan nintzen grabatzera. Sei abesti aurkeztu nituen eta hartu egin ninduten. Hortik aurrera, pix-



Moonpalace Records

Musikaren munduan, etxetik gertu aurkitu du bidelaguna: Beasaingo Moonpalace Records diskografia independentea. Behin Moonpalacerekin topo eginda, erraza izan omen da orain arteko bidea. "Arraroa ere bai. Moonpalace records izan da diskoa argitaratu duena, Beasainen dago. Nik ez nuen ezagutu ere egiten. Bide Ertzean taldearen kontzertua egon zen Legorretan, momentu horretan gose pixka batekin nengoen, nire musika zabaltzen ari nintzen. Nire bigarren maketa Bide Ertzeaneko abeslariari eman nion eta berak bideratu ninduen Moonpalace records-era. Aurretik, abestiak grabatzera joan nintzen Donostiara eta handik astebetera, Beasaingo diskografikari bidali egin nion. Egun batetik bestera iritsi zitzaion eta e-maila bidali zidan, interesatuta zegoela esanez. Grabazioa nire aldetik egin nuen eta berak zabaldu egin du, aldizkarietara, promotoreetara... Diskoak eskuz egiten ditu, edizio mugatua kaleratzen ditu diskoak. Harribitxi bat da diskografiko hori. Ikusita zein musikarik grabatu duten beraiekin... Joseba Irazoki, nazioarteko musikari pilo batek... oso musikari onak dira. Berari eskerrak, jende oso interesgarriarekin jarri naiz harremanetan. Joseba Irazoki ezagutu dut adibidez eta berarekin jo nuen Beran. Moonpalacek asko mimatzen ditu bertako talde guztiak.", aitortu du legorretarrak.

Kritika onak jasotzen ari da Saioa, "Euskadi Gaztean ere jartzen dute. Myspace-n ere sartuta nago", adierazi du. Myspace webguneari buruzko xehetasun gehiago ere eman digu: "musikarion txoko bat da, nire musikarekin sartzen naiz, musikarien iritzia... jasotzen dira nazioarte mailako web gunea da. Musikari asko ezagutzen dituzu eta zu eza-gutzera emateko bide perfektua da".

PSIKOLOGI KLINIKOA	Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak
 Jose Ramon Pato Prieto Psikologian lizentziatua Elkargokide zenbakia: E-2644 RPS: 420/01	
AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041 JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN	

 biok	kudeaketa
Tel 943 88 44 00 Faxa 943 80 51 27 www.biokzerbitzuak.com Ordizia Goierri, 12	fiskala kontablea merkatala laborala

ka bat sinisten hasten zara, balio dezakezula. Norbaiti gustatzen bazaio... Beno, orain ez zaizkit gustatzen niri ere abesti haiek, orduan bai.


**Ez gustatzeko, urte haue-
tan guztietan ikasi egin
duzu beraz, asko ebulu-
zionatu duzu...**

Bai. Hobeagoak egiteko gauza zarela ikusten duzu eta ez musika aldetik baka-
rrik. Konturatzen zara, hizki aldetik ere, heldugabeak zi-
rela. Orain lotsa ematen di-
date. Egia esango dizut, mo-
mentu hartan asko gusta-
tzen zitzaizkidan, baina
orain ezin ditut jasan. Azke-
neko maketa grabatu dut
eta hori gustatzen zait. Al-
dea badago.

Zein izen dauka diskoak?
'Particular land', lurralde partikularra.

**Ingelese abesten al du-
zu?**

Orain atera dudan disko ho-
netan sei abesti bakarrik
daude, hiru ingelesez eta hi-
ru euskaraz. Nik normalean,
ingelesez egiten ditut gehie-
nak. Orain egiten ari naizen
abestiak ingelesez dira.
Errazagoa egiten zait, eroso-
agoa. Eta egia esan behar
baldin badut, gehiago gus-
tatzen zait. Jotzen dudan
musika estiloa, folka, oso
ipar amerikarra da eta eska-
tu bezala egiten du hitzak
ingelesez izatea. Eta nire in-
gelesko ahoskera ere, kan-
tatzeko modukoa dela irudi-
tzen zait. Ingeles batek en-



Saioa

"Izen polita dela iruditzen zait, daukan esanahiarekin gainera. Saioa berez, erdarazko 'intento' bezala da. Nik askotan esaten diot nire buruari, 'Saioa, saiatu!'. Izena asko gus-
tatzen zait: motza da, identifikatu egiten naiz...", aitortu du legorretarrak.

tzungo balu agian esango
luke, baina nik uste dut
nahikoa ondo moldatzen
naizela, bestela aldatuko
nuke.

**Euskarak orduan ez du
hain ondo jotzen?**

Zailagoa egiten zait. Hasiera
batean, instinboki, ingelesa
etortzen zait, gehiena gus-
tatzten zaidalako. Ingelesare-
kin gertatu zitzaidan, batek
esan zidala eta ea ingelesez
probatu nuen. Proban jarri
eta hitzak melodiarekin on-
do zetozen. Saiatu izan naiz

euskaraz jartzen baina asko-
tan ez dute jotzen. Niri ba-
regarria iruditzen zait. Gai-
nera behin abesti bat inge-
lese egiten duzunean, kos-
tatzen den guztiarekin, gero
euskarara planteatzea...

**Zein hitz mota erabiltzen
duzu?**

Eguneroko bizipenak dira.
Maitasunaren ingurukoak
gehienbat, obsesioak, des-
sioak, beldurrak, neurak...
oso modu pertsonalean bizi
ditugun gauzak ateratzeko
modu bat da kantua. Horre-
la ez baldin bazen, beste
era batera atera beharko ni-
tuzke seguraski, beste zer-
bait egiten. Musikak aukera
ematen dit.

**Folk-pop-country estilo-
an eroso sentitzen zara
zure barne sentimenduak**

kanporatzerakoan?

Nik uste dut baietz. Norma-
lean, behin musika estilo
bat egitera jotzen duzunean,
eragin asko dauka entzun
duzunak. Nik entzun dudan
musika gehiena hala izan
da. Nire musikari gustuko-
ak, eguneroko sentimen-
duak jartzen dituztenak,
nahiko biluziak direnak di-
ra. Eta horrek eragina dauka
bai musikan eta bai hitze-
tan.

Zein erreferentzi dituzu?

Asko dira eta gainera egu-
nero berriren bat ezagutzen
dut. Klabe-klabeak esateko,
Jeff Buckley, Elliot Smith,
The Black Crowes, Bright
Eyes... Nahiko irekia da.

Gitarra lagun ona al da?

Mota honetako abestiak
kantatzeko bai. Egia da bai-

Errezagoa egiten zait ingelesez sortzea,
erosoago sentitzen naiz.



kutxa

ta ere, ahotsa garrantzitsua dela. Harmonika ere badu. Askok esaten didate bateren bat-edo falta dela... baina denborarik ez daukat jendearekin entsaiatzeko. Baina konturatu naiz, ahotsa, beste instrumentu bat dela. Konturatu naiz, nire ahotsak, uste baino joko gehiago ematen duela. Garrasi batetik, murmurio batera pasa zintezke bat-batean eta jendea horrekin gelditzen da. Nahiz eta gitarra batekin bakarrik egon, zuri begira dago eta askotan nahikoa da. Horretan saiatzen ari naiz, ahotsarekin jolastuen.

Zer moduz sentitzen zara, bakarrik, eszenatoki gainean?

Ba, ondo. Harrituta nago, Donostian oso gaizki pasatu nuen, eszenarioan bertan baino gehiago, aurretik eta ondoren. Oso-oso gaizki pasatu nuen. Beldurra neukan, niretzako zer suposatuko ote zuen hark... Eta momentu batean ere ahaztu egin nuen kantua, egin nahi nuena egin nuelako. Baina konturatzen joan nintzen gehiegi tiratzen zidala mundu horrek, horretan uzteko, niretzat oso garrantzitsua zela. Eta abestiak hobeagoak egiten ari nintzen eta ezin nintzen horretan gelditu.

Musikaren munduan sartu zara buru belarri beraz. Zer moduz sentitzen zara?

Ondo, oso ondo. Hortik fa-

marako saltoa, beste kontu bat da. Irratian, eta mundu alternatiboan ere, hainbeste dago! Nabarmentzea oso zaila da. Edo oso nabarmen edo bitxi zoaz... Askotan jendea ez da musikan fijatzeko, eta hori horrela da.

Musikari berriek zaila daukate beraz, bidean aurrrera egitea?

Bai, eta ez da erraza. Oso proposamen arriskatuak izan beharra dauka, moldeak hausten dituenak. Niri iruditzen zait momentua aprobe-txatu behar dela eta kitto.

Helburua edo ametsa zein izango zenuke?

Gauza bat da errealista izatea, baina ez dakit honetaz bizitzea gustatuko litzaidakeen, hori ez daukat batere garbi. Denboraldi batean apustu egingo nuke, hori bai. Bandejan jarritz gero, arriskatuko nintzatekeen. Baina garrantzitsua iruditzen zait, lan bat eduki eta musika, ihesbidea izatea.

Zein eszenatoki mota gustatzen zaizu?

Txikia. Egia esanda besterik ere ez dut ezagutzen. Adibidez, diskoa, Irungo Kabi Gorrin aurkeztu nuen, taberna eta areto kulturala zen, aste osoko programazioa daukate... hara doan jendea entzutera doala.

Herrian bertan egin al duzu zerbait?

Ez, baina aste kulturalean zerbait egiteko asmoa badaukatu.



“Nirea, adikzioa da”

Musika estilo bat:

Folk-rock.

Talde bat:

Jeff Buckley.

Musika entzuteko garai bat:

Momenturo. Ez daukat momentu fijo bat, denbora guztian ari naiz musika entzuten. Nirea adikzioa da.

Dutxan abesten al duzu?

Askok. Dutxara joaten naizenean musika jarrita edukitzen dut.

Musika tresna bat:

Gitarra eta harmonika jotzen ditut. Organoa ere ari naiz dezente jotzen, gustura nabil. Nire kasa ari naiz. Baina, hainbeste musika tresna erosiko nituzkeen! Banjo bat erostea ari naiz pentsatzen. Merkeak balira erosita edukiko nituzke. Hurrengo diskoan, baldin badago behintzat, pianoa sartuko dut, abesti bat ona atera zait.



Garbiketa
Zerbitzu
Integrala

Enpresen mantentzea

Tel./Faxa: 943 188 194 Mug.: 696 999 117
Kale Nagusia, 25, 1. esk. IDIAZABAL



NAFARROA ETOR, 17
T/F 943 88 94 82



KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN
PLOTTER LANAK ETA
PLANOEN KOPIAK

☎ 943 02 73 58
Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5 BEASAIN



Odei Lopez legorretarra: pisu jaurtitzaille txapelduna

*Iaz Euskadiko eta
Espainiako txapelketak
irabazi zituen,
juniorretan*

Duela sei urte, pisu jaurtiketarekin topo egin zuenetik, ez da gelditu Odei Lopez legorretarra. 18 urte ditu eta juniorretan azkenengo urtea du. Iaz, Euskadiko eta Espainiako txapelketak irabazi zituen. 17,36 metrora bota zuen sei

kiloko bola. Txindoki Atletismo taldeko kidea da. Realarekin aritzeko baimena ere badauka. Espainiako selekzioko partaide da eta Madrilgo konzentrazioa joan atarian harrapatu dugu Legorretan, serio-serio, pisu jaurtiketan, aurrera egin nahian.




ASEPLAN S.L.
A HOLKULARITZA · ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA





www.txekin.net

Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea
BEASAIN
Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g



Mendizabal, C.B.
ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)
659 644 221 (Xabi)
Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA



*Odei Lopezen
entrenamendu saio
batean, bola jaurtitzeko
egin beharreko pausoak
ikusten dira argazki
hauetan. Jaurtiketa
bakoitzaren ondoren Peio
Etxabe entrenatzaileak,
akatsak adierazi eta
zuzentzen laguntzen dio.*

Noiztik zabilta pisu jaurtiketan?

Orain dela sei urte hasi nintzen, infantilen mailan. Orain juniorretan, bigarren urtean nabil. Beti Txindoki taldean ibili naiz eta orain arte behintzat, oso gustura.

Nolatan hasi zinen pisu jaurtiketan?

Eskolatik taldea atera nahi zen eta pisu jaurtiketan, bigarren egin nuen. Beraz, disko jaurtiketan animatu nintzen. Marka dezente ona

egin nuen diskoan eta bi egunetan entrenatzera joan eta proba egiteko esan zidaten. Entrenatzera joan eta pisuan irabazten zuena zegoen eta berarekin hasi nintzen entrenatzen. Berarekin hasi, gustatu egin zitzaidan eta pisuan jarraitu nuen. Hura berriz, diskora pasa zen.

Pisu jaurtiketan aritzeko teknika ere ikasi beharko zenuen...

Bai. Pisuan dena teknika

da. Pentsa, indar kopuru bera eginda, hiru metrotik gorako diferentzia egon daiteke jaurtiketa batetik bestera. Teknika perfektua ia inork ez dauka. Egunitik egunera hobetzen saiatzen gara baina... zaila da.

Nork erakusten dizu teknika? Nor duzu entrenatzailea?

Entrenatzailea Jon Aranburu da. Teknika egun batean berarekin lantzen dut eta beste batzutan, Tolosara jo-

aten naiz, Peio Etxaberen-gana.

Teknika bakarrik ez da izango, zein beste entrenamendu egiten duzu?

Abiadura, saltoa, baloi medizinala... pentsatzen ez dituzuen hainbat gauza.

Korrika ere egin behar izaten duzu beraz.

Korrika bai, motxak, serieak. Garaian arabera izaten da hori. Aurre denboraldian beharbada 100 metrokoak egingo ditut. Gero hortik

aurrera, 50ekoak, 30ekoak... eta 10 metroko sprintak ere bai. Aurten ere, salto asko ari gara egiten.

Saltoak zertarako?

Aurrerako, goraka... orain hesiekin hasi gara. Jaurtikeak bi zati dauzka eta lehenengo zatian ez hondoratzeke, azkar ateratzeko... laguntzen dute hesiek. Beste saltoek indarra hartzeko balio dute.

Saltoak lantzen hasi zarenetik hobekuntzarik nabaritzen al duzu?

Ez dakit, orain ikusiko dugu. Saltoak beti egin izan ditut baina aurten inoiz baino gehiago.

Fisikoa garrantzitsua al da?

Altua izateak abantaila handia du. Pisu goragotik edo behegortik bota, alde badago.

Apirilaren bukaeran hasiko duzu aire zabaleko denboraldia.

Realarekin arituko naiz. Txindoki, Realaren filiala da eta baimena daukagu Realarekin lehiatzeko. Aurten gainera, Realaren tratamendua jasoko dugu.


Diferentziarik ba al dago?

Bai, jakina. Txindokitik, normala den bezala, ez daukagu dirurik. Realak zerbait ematen digu, Realaren fisioterapia. Diferentzia ederra dago.

Espainiako selekzioarekin ere aritzen zara.

Bai, grazia handirik ez du egiten baino.

Promesatan hiru urte



Hurrengo denboraldian promesa izango zara eta pisu handiarekin, 7,260 kilokoarekin arituko zara.

Promesatan hiru denboraldi egin beharko ditut. Nabaritu egingo da. Askok gainera. Bola handiagoa ere bada... Ni horrekin le-

sionatu nintzen iaz.

Hortik gora, zortea ere beharko da?

Oso zaila dago. Espainia mailan, pisu jaurtiketan, maila asko igo da. Historiko Espainiako txapelketarik onenak egiten ari dira. Bost onenak, inoiz imajinatuko ez ginen markak egiten ari dira. Izugarritzko maila dago.

Hobekuntza hori, pisu jaurtiketan bakarrik da, ala orokorrean?

Pisu jaurtiketan. Besteetan jaisten ari da maila.

Zure burua ikusten al duzu Olianpiar Jokoetan?

Espero dut ordurako Euskadiko selekzioa egotea. Zaila dago. Laguntzarik ere ez dago eta marka batzura iristeko, hortarako bizi beharra daukazu.

Etorkizunean beraz, nola ikusten duzu zure burua: pisu jaurtiketan, bertsolari...

Bertsu saioetara joaten behintzat bai, entzule bezala eta ahal baldin bada atletismoarekin edo kirolarekin segi. Nik kirola utziz gero pisu handia hartuko dut eta kirolarekin jarraitu beharra daukat.

Euskadikoa noizko izango dugu?

Hori beste gauza bat izango da. Badaukat gogoia baina nik ezagutzea zaila izango da.

Espainiako selekzioan zer moduzko giroa daukazue?

Giro polita dago, ondo ibiltzen gara. Katalanekin beti izaten ditugu ika-mikak, baina ondo, gustura. Erdaraz hitz egin behar, hori da txarra. Erdaraz han ikasi dut.

Iaz denboraldia ondo joan zitzaizun. Euskadiko eta Espainiako txapelketak irabazi zenituen.

Denek esaten dute iaz ondo joan zitzaizkida baina iaz lezionatuta egon nintzen, aire libreko lehiaketara ia joan gabe gelditu nintzen. Eskuan izan nuen mina eta ezin nuen pisurik hartu. Gero ondo, Espainiako txapelketan egun ona eduki nuen-eta, giro ona egon zen. Donostian jokatu zen eta Legorreta erdia han ze-

goen. Ia batere entrenatu gabe egon nintzen eta aurtengo denboraldi hasieran ederki antzeman dut. Orain hobeto dago.

Aire librean eta pista estalian izaten dira lehiaketak. Alde handia al dago batetik bestera?

Pista estaliko denboraldia, azarotik martxora izaten da. 4 edo 5 lehiaketa izaten dira eta bostetan ondo egon behar duzu eta hori ezin da. Prestakuntza oso motza da, udako gauza guztiak bota

ainaraxberria



HANKARA

podologia zentroa

Tel.: 943 887 946

Zelaeta-berri plaza,4 BEASAIN

ZUGAZTIBI

AHOLKULARITZA



www.txekin.net

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble

ajentzia

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 2 behea
ORDIZIA

9:30etik 19:00etara
EGUARDIZ IREKITA

Pisu jaurtiketan dena teknika da.

Jaurtiketa batetik bestera

hiru metrotik gorako aldea egon daiteke.

beharra dauzkazu, eta badakizu uda zer izaten den... Nik kanpoko nahia-go dut, entrenatzeko denbora gehiago izaten da. Baina hala ere paliza handiagoa da kanpoko barrukoa baino. Hilabete asko dira entrenatzeko eta bukatzeko gogoarekin egoten gara.

Serio helduz gero, etorkizuna ziurtatuta edukiko duzu beraz.

Nahiko serio eusten diogu dagoeneko eh? Aurten batez ere. Aurten nahiko zentratuta gabiltza, iaz nahiko aldrebesa izan zen-eta.

Lesio asko izaten den kirola al da?

Bai. Batez ere bizkarrean eta belaunetan. Entrenamenduetan pisu asko mugitu beharra dago. Sinistu ezin daitezkeen pisuak mugitzen ditugu. Hankak ere karga-karga eginda ibiltzen ditugu, pisuarekin, abiadurako ariketekin, saltoekin... Ariketa horiekin bakarrik, bizkarra eta belau-nak dira gehiena sufritzen dutenak... Ni belaunetatik gaizki ibiltzen naiz. Suerte-a eduki behar da lesiorik ez edukitzeko.

Goierriin aurretik izan da beste pisu jaurtitzaile bat,

Iker Sukia ataundarra. Hark ere lesioagatik utzi behar izan zuen.

Galanta gainera! Nik Iker ez dut ezagutu pisu botatzen ari zenean, baina aurreko batean ikusi nuen eta oraindik ere postura dotorea ikusten zaio. Hori bizikletan bezala da, ikasiz gero ez da ahazten. Ikerrena bezalako teknika, nik oso gutxi ikusi diet. Halako marka dauka.

Erakusteko esan beharko diozu.

Hura ibili zen entrenatzailea badaukat Tolosan, baina hura, ataundarra da.

Euskal Herri mailan, pisu jaurtiketan, zer moduzko maila dago?

Ona. Badago beste bat, Romero, 17,46 metro bota dituen zazpi kiloko bolarekin, handien mailan, Espainiako txapelketatan zazpi-garrena gelditu da. Historiko 15 markarik oneneko marka bat badauka: 18,56. Badago bai, pentsatzen dut etorkizuna egongo dela.

Eta Estatu mailan?

Niri iruditzen zait, badagoe-la bat, hurrengo urteko Mundialetan, ezustekoa emateko pertsona bat, ondo entrenatzen badu eta gogo-a badauka.



Bertsoa, sagardotegia eta kartak

Kirol bat:

Ikusteko, futbola. Atletismoa ere bai.

Zaletasun bat:

Bertsoa, sagardotegia eta kartak.

Bertsoa osatzea ala pisua botatzea da zailagoa?

Biak zailak. Bertsoa ez dut behin ere ondo bota eta pisua teknikoki ondo, konta ahalak.

Bertsolari bat:

Aitor Sarriegi.

Edari bat:

Sagardoa.

Janari bat:

Arraina saltsan.

Musika mota bat:

Egia esanez gero, ez naiz oso musikazalea.

Musika talde bat:

Su ta Gar.

Festetarako plan bat:

Euskadiko txapelketak dauzkat... baina bilatuko dut tarteren bat.

Oporretako leku bat:

Asturias.

Amets bat:

Euskal Herria independentea.



Egurrezko lehioak, kontraleihoak, atea eta eskailerak neurria.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxe: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU

Aseguru konfeduria

SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE

Elosegi, 1- behea
Tfnoa.: 943 88 86 20
Tfno. mugikorra: 609 49 14 41
Faxe: 943 88 91 18
LAZKAO

ETXEBIZITZAK

errentan hartu

Hiru neska euskaldunek alokairuan pisua nahi dute. 628654250.

salgai

Ataunen, San Martinen. Berrituko 2 etxebizitza. 150.000 eurotik. INMO F3 943164936 - 629417171.

Ataunen, berritzeko etxe eder bat aukera ezberdinekin. 216.365. INMO F3 943164936 - 629417171.

Altsasun unifaliarrak salgai. 179 m² erabilgarri. Sukalde hornitua, lorategia, garaje bikotza eta aurrerakuntza domotikoekin. 319.000 euro. Abuzturako bukatuta. 649463289.

Beasainen, kanpo aldera ematen duen 85 m²ko etxebizitza salgai. Berogailua. Garajea. 248.000 euro. INMO F3 943164936 - 629417171.

Beasainen, erdigunean, berritutako apartamentu polita salgai. Sartzeko prest. 180.000 euro. INMO F3 943164936 - 629417171.

Beasain. Hiru eta lau logelatako etxebizitzak. Sukalde hornitua, egongela, bainugelak, trastelekua eta terrazarekin. Igogailua. BERIO INMOBILIARIA. 943805721.

Donostian, Artzain Onaren inguruan, etxebizitza bezala prestatutako lokala, guztiz erreformatua. 38 m². Aire ego- kitua. 619488642.

Ezkio-Itsaso. 50 pisuren promozioa. 85 m² erabilgarriak. 3 logela, sukaldea, 2 bainu, jangela eta egongela. Norbere berogailua. 39,7 milioitik hasita. GUNE. 943037975.

Idiazabalen 115 m²ko pisua salgai. Erabat berritua. Berogailua eta igogailua. Garaje eta ganbarakin. INMO F3 943164936 - 629417171.

Idiazabal. Berritzeko bi apartamentu salgai. 108.000 eurotik aurrera. INMO F3 943164936 - 629417171.

Lazkao. San Prudentzian, 3 logela, egongela, sukaldea, bainua eta bi balkoi. Dena kale- ra begira. 210.500 euro. 658708459 / 667074392.

Legazpi. Domingo Agirre. Sukalde, 3 logela, bainua, egongela, trastelekua, ganbara. Dena altzari hornitua. 38 milioi. GUNE. 943037975.

Legorretan, etxe adosatua, estreinatzeke. INMO F3 943164936 - 629417171.

Legorretan, etxebizitza ederra, eguzkitsua, igogailua. 216.365 euro. INMO F3 943164936 - 629417171.

Legorreta. 90 metroko etxebizitza. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Igogailua eta trastelekua. Dena kanpoaldera. BERIO INMOBILIARIA. 943805721.

Segura: eraberritutako etxebizitzak. Bi eta hiru logela, egongela, sukalde ekipatua eta bainugela. BERIO INMOBILIARIA. 943805721.

Zegama. Etxebizitza salgai, garajearekin. 615008442

Ezkaraín, eraikuntza berriko duplexa. Sukalde, egongela, 2 logela eta bainugela. Kanpoaldera. BERIO INMOBILIARIA. 943805721.

Urretxu. Iparragirre. 2 logela, sukaldea, egongela, bainua, trastelekua. Argitsua. 29 milioi. GUNE. 943037975.

Zumarraga. San Gregorio. 3 logela, bainua, sukaldea, egongela, jangela. Dena kanpora. Igogailua. Ezin hobeto. Informazio pertsonala. GUNE. 943037975.

Zumarraga. Jai Alai. 60 m², bi logela, sukaldea, bainua, egongela. Dena kanpora. Igogailurik ez. 38 milioi. GUNE. 943037975.

Zumarraga, Secundino Esnaola. 3 logela, sukaldea, jangela-egongela, bainua eta trastelekua. 110 m². Igogailua. 55 milioi. GUNE. 943037975.

BESTELAKOAK

salgai

Ekipo informatiko osoa salgai. Formateatu berria (windows xp, office...) egokia internetarako eta lanerako. Prezio negoziagarria. 610348048.

Segadora saltzen da. Gutxi erabilia, prezio onean. 943886513 - 943885135.

Kanapea eta koltxoia salgai. Pikolin Normablock etxe-koak. 160 x 200. Egoera onean. 699511921.

Egurrezko mahai handi sendoa salgai. Aulkiekin. Prezio onean. 690311342.

Sutarako pago egur lehorra salgai. 615755762. Etxera entregatzen da.

LURSAILAK

salgai

3 hektareako mendiko lur- saila salgai, Legorretan, errepide ondoan. 605714784. 20:00etatik aurrera deitu.

Olagi Urte guztian zabalik

Sagardotegia Eguneroko menua Karta Sagardotegiko menua

Jatetxea

© 943 88 77 26 ALTZAGA



ikaskide irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5 Beasain 943 160 120 www.ikaskide.net


ESKOLA LAGUNTZA INFORMATIKA INGELERA IKASKETA TEKNIKAK UNIBERTSITATE-MAILA

SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

Mota guztietako gida-baimenak

Aita Urdaneta ORDIZIA

☎ 943 88 72 76



MUJKA LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

KONTSULTORIO **MEDIKU-KIRURGIKOA**

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko: **943 08 55 60**

Faxa: 943 08 55 61

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN

LANA

eskaerak

Begiraleak behar dira Urre-txu-Zumarragako udalekueta-rako. 943795446.

idazkaritza@txatxilipurdi.com.

Bi haur zaintzeko, arratsalde-
etarako pertsona euskalduna
behar da. 669339887.

Lazkaoko okindegi baterako
pertsona bat behar da.
943885500 (8:00-14:00).

Langile bat behar da kotxe
tailer batean, Goierriin.
670285995.

Idiazabalgo Nekazari koope-
ratiban arratsaldez lana egite-
ko pertsona bat behar da.
943187669.

Lazkaoko taberna batean lan-
gile bat behar da. 606435022.

Jatetxe berri baterako 4 zer-
bitzari behar dira. Lan kontra-
tua eta baldintza onak.
685794755.

Emakume bat behar da on-
tziak garbitzeko jatetxe bate-
an. 943187319.

eskaintzak

Emakume batek Goierriin
orduka lan egingo luke. Garbi-
keta lanak, adinekoak zaindu...
605702410.

Neska eskaintzen da hurren-
go lanetarako: garbiketa, per-
tsonen zaintza, apal-betetzai-
le... 676924285.

Antzuolan tarota irakurtzen
da. 943766214.

Etxeko lanak egiteko edo
gaixoak zaintzeko esperientzia-
dun emakumea eskaintzen da.
652701620.

IBILGAILUAK

salgai

Renault Meganea salgai.
Urtebetekoa. Aukera onean.
619592949.

Goierritarrako iragarki laburrak:

hitz bakoitzeko 0,63 euro.

Iragarkia bi aldiz argitaratuko da Goierritarran,
behin Goierriko Hitza eta 7 egunez egongo da
www.goierrikohitza.info webgunean.

943 88 96 12

goierritarra@goierrikohitza.info
gh@goierrikohitza.info

ANIMALIAK

salgai

Arratoi txakur ama eta
umeak salgai. Prezio parega-
bea. 637062203.

opari

2 asto salgai, biak 400 euro.
943180388.

3 urteko setter ingelesa opa-
ritzen da. 659219237.

GALDUTAKOAK

Beasainen, loroa galdu da,
grisa eta isats gorria.
943085102.

AURKITUTAKOAK

Maitzak Sean Arkakan
aurkitutako betaurreko gra-
duatuak (artikulatuak) daude
Zaldibiko Udaletxean.
943880357.

MULTIOPTICAS

Betaurreko progresiboak
isla-kontrako lenteekin **149 €**



Diseinuko betaurreko progresiboak

COOL bilduma, MultiOpticas-en eskusiban

Eskaintza hau 07/05/07tik 07/06/30era arte izango da. Cool, Cool + eta Fashion Pro markako armazoi selekzio bat
eta 2 lente progresibo Multifoko E 1.5 AR Basic, zil: +2 esfera +4 -6ra; add: +3 hartzen ditu barne.

R.P.S. N° 190/04 I.L.G.

J. Carlos Guerra, 1
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

C/ Nueva, 15 - GROS
Tel.: 943 32 66 49
DONOSTIA

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

Koldo Mitxelena, 7
Tel.: 943 51 78 11
ERRETERIA

Mendibil M.G.
Tel.: 943 63 99 01
IRUN

J.M. Barandiaran Enp.
Tel.: 943 88 99 88
ORDIZIA

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA



Gabiriarrek Antiguan, 1952ko uztailaren 2an

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Pilar Arruabarrena (Aunditegi errota), Juanita Izuzkiza (Jauregi), Laura Pikasari (Baztarrika) eta Ramon Bidegain (Sous).

Beheko ilaran: Kontxita Oñatibia (Arane Txiki), Euxebia Ormazabal (Landarregi) eta Ana Mari Galdos (Etxeberri-txo).

LEIAR

LEIAR

KRISTALDEGIA

ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g

☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea

☎ 943 88 60 70

BEASAIN

izal

IMAZ eta CONTRERAS

PINTURA eta PAPERGINTZA

☎ 943 187 049

☎ 943 187 045

Ondramuño baserria

IDIAZABAL

Jauregi

TOLDOAK

INSTALATZAILE OFIZIALA

llaza

LLAZAPLUS ZENTROA

T 943 880 243 Antzizar auzoa z/g - Beasain

SILVIA MIRASCASAYAS

ODONTOLOGOA

KOL. Zka: 649 RPS: 144/02

TEL./FAX: 943 88 92 87

SAN INAZIO KALEA, 2

20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



Goierri Lanbide Eskola
la granja auzoa, z/g
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 880 062
Faxa: 943 888 351
www.goierrieskola.org
bulegoa@goierrieskola.org

Goierri Lanbide Eskola

2007-08 eskaintza

Zurekin etorkizuna landuz

LANBIDE-HEZIKETA

Goi mailako zikloak:

- Administrazioa eta Finantzak
- Eraikuntza metalikoak
- Proiektu mekanikoen garapena
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Telekomunikazio eta informatika sistemak
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
- Industria-ekipoen mantenimendua


Erdi mailako zikloak:

- Mekanizazioa
- Soldadura eta Galdaragintza

Lanbide hastapenak:

- Autoen mekanika, Iturgintza, Txapa eta pintura, Sukaldaritza

Lan praktikak eta lan burtsa: Laneratze tasa %95



Aurre inskripzioak: Ekainaren 1etik 7ra

Ate irekien eguna: Maiatzak 12, goizeko 9etatik 12:30era



suquia

KALE NAGUSIA, 10

TEL.: 943 882 300 FAXA: 943 881 348

ORDIZIA 20240 GIPUZKOA


e-posta: suquia@suquiahogar.com

NAFARROA ETORBIDEA, 16

TEL.: 943 884 375 FAXA: 943 805 250

BEASAIN 20200 GIPUZKOA

altzariak - elektragailuak



Gure izatea kalitatea eta zerbitzua

Etxean bertan martxan jartzea dohainik